


 BOOKTEGI

GASPAR RUIZ



J o s e p h C o n r a d

itzulpena: Josu Zabaleta



BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

JOSEPH CONRAD

Gaspar Ruiz

itzulpena:

Josu Zabaleta

Iraultza-gerrak pertsonaia berezi asko atera ohi ditu gizartearen barealdietan bizitza apal askoren patua izan ohi den iluntasunetik.

Pertsona banaka batzuk beren bizio edo bertuteengatik egiten dira ospetsu, edo beren egintzengatik, beste gabe, gerta baitaiteke aldi batean garrantzizkoak izatea; eta gero ahaztu egiten dira. Buruzagi banaka batzuen izenak berez geratzen dira bizirik borroka armatua bukatu ondoren eta luzaroago gordetzen dira historian; eta hala, gizonen oroimen bizitik desagertu ondoren ere, liburuetan jarraitzen dute.

Santierra jeneralaren izenak erdietsi zuen paper eta tintazko hilezkortasun hotz hori. Familia oneko hegoamerikar bat zen, eta kontinente hura Espainiaren aginpide itogarritik askatu zutenen artean aipatzen dute bere garaian argitaratu ziren liburuek.

Alde batek independentziaren alde eta besteak menderakuntzaren alde borrokatu zuten liskar luze hark hil ala biziko borroka baten basakeriazko eta ankerkeriazko aiurria hartu zuen urteetan zehar eta fortuna aldakorraren gorabeheratan. Gupida- eta erruki-sentimendu oro desagertu zen gorroto politikoa zabaldu ahala. Eta gerra orotan ohi den bezala, herri masa izan zen, ondorioekin zer irabazi gutxien zuena, beren pertsona ilun eta ondasun apaletan gehien pairatu behar izan zuena.

Santierra jeneralak teniente bezala hasi zuen zerbitzua, gerora Lima konkistatu eta Peru askatuko zuen San Martin ospetsuak antolatu eta gidatzen zuen gudarostean. Bio-Bio ibaiaren ertzetan gudu handi bat jokatu berri-berria zen orduantxe. Erregeren tropa menderatuei hartutako presoen artean bazen soldadu bat, Gaspar Ruiz izenez. Haren gorpuzkera sendoak eta haren buru handiak nabarmendu egiten zuten bere preso-lagunen artean. Guztiz izaera berezia zuen. Hilabete batzuk lehenago Errepublikazaleen gudarostetik ihes egin zen, gudu handian baino lehen izan ziren gatazka ugarietako baten ondoren. Eta orain, Erregeren tropen artean armak eskuan zituela harrapatu zutelarik, ezin espero zezakeen desertore gisa fusilatuta hiltzea beste zoririk.

Gaspar Ruiz ez zen desertorea, ordea; haren adimenak nekez uler eta ikus zitzakeen garbi traizioaren abantailak eta arriskuak. Zergatik aldatu behar zuen alderdiz? Egiaz, preso harrapatu izan balute, tratu txarrak eta eskasia handiak pairatu beharko zituzkeen. Ez alderdi batek ez besteak ez zuten samurtasunik etsaiarekin. Behin, preso zeuden beste errebelde batzuekin batera, Erregeren gudarostearen aurrealdean joateko agindua jaso zuen. Fusil bat jarri zioten eskuetan. Hartu zuen. Aurrera jo zuen. Ez zuen nahi, ibili nahi ez izateagatik, ankerkeria bereziko modu batean hil zezaten. Ez zuen ulertzen heroismoa, baina aukerarik

txikiena zuenean fusila hortik zehar botatzeko asmoa zuen. Bien bitartean kargatzen eta tiro egiten aritu zen, lehenengo uzkurtasun seinalearekin Espainiako Erregeren ofizialordeetakoren batek garuna leherraraziko ote zion beldurrez. Bera eta bera bezala besterik gabe tiroz hiltzera kondenatuta zeuden beste hogeiren bat desertore zaintzapean zeuzkan sarjentuari gogoeta bakun horiek azaltzen ahalegindu zen.

Valparaisoko badia mendean hartzen zuten baterien atzeko gotorlekuko plazan gertatzen zen hori. Bera identifikatu zuen ofizialak bere adierazpenak entzun gabe alde egin zuen. Erabakita zegoen bere zoria; eskuak atzean gogor lotuta zeuzkan; gorputza goitik beheraino minberatua, harrapatu zuten tokitik gotorlekuaren aterainoko bide atsekabetsuan bizkor ibiltzera behartzeko eman zizkieten makilakada eta kulata-kolpeengatik. Horixe izan zen presoek lurralde hartako paraje lehor mortuan zehar egin zuten lau eguneko bidaiaren zaintzaileengandik jaso zuten arreta sistematiko bakarra. Erreka bakanetakoren bat igaro behar zutenean, zakurrek bezala bizkor-bizkor edanez uzten zieten egarria itotzen. Ilunabarrean okela soberakin batzuk jaurtikitzen zizkieten, beren pausalekuko harrizko zoruan akiturik etzaten zirenean.

Gaspar Ruiz, gau osoan nekearen nekez ibili eta ibili aritu ondoren, goizean goizetik gazteluko patioan zegoenez, egarriak hil behar zuela, eta mingaina ahoan arras handituta eta lehor zeukala sentitzen zuen.

Eta, egarri larriaz gainera, amorru sor bat sentitzen zuen, zehazki adierazi ezina, bere espirituaren kemena inondik ere gorputzaren indarraren parekoa ez balitz bezala.

Kondenatuen taldeko gainerako presoak burumakur zeuden, lurrera temaz begiratu. Gaspar Ruizek, berriz, behin eta berriro errepikatzen zuen:

–Zer dela-eta desertatu behar nuen nik Erregeren aldera? Zer dela-eta desertatu behar nuen? Esadak, Esteban!

Sarjentuari hitz egiten zion, eskualde berekoak suertatu baitziren. Sarjentuak, ordea, bizkar argalak jasorik, ez zion gehiago arretarik egin atzetik marmarka ari zitzaion ahots sakonari. Harritzekoa zen, benetan, Gaspar Ruizek desertatu izana. Haren jendea, izan ere, egoera apalegian baitzegoen ezein gobernu motaren alde txarrak bereiziki sentitu ahal izateko. Ez zegoen arrazoirik, beraz, Gaspar Ruizek Espainiako erregeren legea bere gain jasan nahi izateko. Eta inoiz ez zuen agertu, ezta ere, hura hankaz gora botatzeko zale berezirik ere. Oso modu arrazoizko eta natural batez partaidetu zen independentziaren aldeko taldean. Goiz batez abertzale talde bat azaldu zen bere aitaren landetxe inguruan, etxea zaintzeko zeuden zakurrak lantzaz zauritu eta behi gizen bati belaunpeak ebaki zizkieten, begi-kliska batean guztiak, “Gora Askatasuna!” oihu eginez. Haien ofizialak suharki eta hitz beroz arengatu zituen, Askatasunaz hitz eginez, loaldi luze bizkorgarri baten ondoren. Ilunabarrean, beren zamari abailduak aldatzeko Ruiz aitaren zaldirik onenetako batzuk eramanez alde egin zutenean, Gaspar ere haiekin joan zen, ofizial ele-ederrak hartara

hertsatuki bultzaturik.

Handik pixka batera, eskualdea baketzeko etorritako Erregeren tropa destakamendu batek landetxea erre eta geratzen zen ganadua eta zaldiak eraman zituen, horrela xahar gaixoek mundu honetan zituzten ondasun guztiez gabetu eta sasi batzuen azpian utzirik, bizitzaren dohain neurrigabea goza zezaten.

Gaspar Ruizek, desertore izateagatik hiltzera kondenaturik, ez zituen gogoan ez jaioterria ez gurasoak, nahiz haientzat seme ona izan beti, bere izaera xaloarengatik eta besoen indar handiagatik. Indar horren abantaila praktikoa hala ere, are estimatuagoa zuen aitak, mutilaren menekotasuna kontuan hartuta. Gaspar Ruizek oso izaera otzana zuen.

Orain, ordea, halako asaldura beltz baten bulkada sentitzen zuen, traidore baten moduan hil beharraren gorrotoz. Ez baitzen traidorea. Eta berriro esan zion sarjentuari:

–Zuk badakizu nik ez dudala desertatu, Esteban. Badakizu destakamenduak ihes egin bitartean etsaiari eusteko geratu nintzela atzera zuhaitz artean, beste hirurekin batera!

Santierra tenientea, garai hartan ia-ia mutil koskorra artean, oraindik gerra egoerako ergelkeria odoltsuetara ohitu gabea, han inguruan geratua zen, komandanteak esan bezala, “eskarmenturako” berehalaxe fusilatu behar zituzten gizon haien ikuskariak liluraturik bezala.

Sarjentua, presoari begiratzera makurtu ere gabe, nagusitasunezko irribarrez hasi zitzaion ofizial gazteari:

–Hamar gizon ez ziratekeen aski izango gizon hori preso hartzeko, teniente jauna. Are gehiago, beste hirurak destakamendura bildu ziren ilundu zuenean. Zergatik ez zuen berak ere beste horrenbeste egin, onik zegoela, eta beste guztiak baino indartsuagoa izanik gainera?

–Nire indarra ezer ez da lakioa darabilen zaldizko baten kontra –ihardetsi zion biziki Gaspar Ruizek–. Milia erdiz eraman nau zaldiaren atzean arrastaka.

Horren arrazoi sendoaren aurrean, erdeinuzko barre bat besterik ez zuen egin sarjentuak. Ofizial gaztea lasterka joan zen komandantearen bila.

Handik gutxira gotorlekuko laguntzailea azaldu zen. Hezurra eta azala besterik ez zen gizon erretxin bat zen, uniforme zarpail batez jantzia. Aurpegi zapal horizta batetik ateratzen zitzaion ahots totela. Haren bidez jakin zuen sarjentuak iluntza arte ez zituztela fusilatuko kondenatuak. Orduan, bitartean haiekin zer egin behar zuen galdetu zion.

Laguntzaileak begirada basati bat bota zuen patio inguru guztian, eta airea eta argia barrote lodiz gurutzatutako leiho bakar batetik sartzen zen ziega moduko guardia-gela txiki bateko atea erakutsiz, erantzun zion:

–Sartu hortxe jendaila hori.

Sarjentuak, bere graduagatik zegokion makilari estuago oraturik, arin eta pozik bete zuen agindua. Gaspar Ruiz, astiro mugitzen baitzen, buruan eta bizkarrean jo zuen. Gaspar

une batez geldirik geratu zen, kolpe-zaparrada haren pean, gogoetetan ezpainei hozka eginez, harridurazko gogoeta-prozesu batean murgildurik balego bezala; eta gero presolagunei jarraitu zien, presatu gabe. Atea giltzaz itxi zuten, eta laguntzaileak eraman zuen giltza.

Eguerdian, sabai apalezko gela bobedadun hartan ezin eramanezkoa zen beroa. Presoek, leiho inguruan pilaturik, ur-tanta bat emateko erregutzen zieten guardiei; soldaduek, berriz, horma ondoan itzaltxo bat zegoen tokietan nagi-nagi etzanda jarraitzen zuten; zentinelak, aldiz, ate kontratan, zigarro bat errez, aldiaren behin bekainak jasotzen zituen filosofoaren moduan. Gaspar Ruizek inork eutsi ezin zion indarraz leihoraino bidea egin zuen. Haren bular zabalak besteenak baino aire gehiago behar zuen; haren aurpegi handiak, kokotsa barlasaian jarririk, barroteen kontra estaturik, hara arnasa hartzera pilatutako guztiei eusten ziela zirudien. Negarrezko erreguetatik etsimenezko oihuetara igaroak ziren, eta gizon egarri haien garrasi-iskanbilak, oihu egitera behartu zuen une hartantxe patioan zehar zihoan ofizial gazte bat, entzungo bazioten:

–Zergatik ez diezue ematen ura preso horiei?

Sarjentuak, harridura-aire xalo batez, jende hura handik ordu gutxira hiltzera kondenatuta zegoelako aitzakiaz zuritu nahi izan zuen.

Santierra tenienteak ostikada bat eman zuen lurraren kontra.

–Hiltzera daude kondenatuta, ez torturatuak izatera –esan zion–. Emaiezue ura oraintxe bertan.

Haserre-jarrera horrek eragin zien zirrareekin, soldaduak mugitzen hasi ziren, eta zentinelak, fusila berriro harturik, irmo jarri zen.

Baina murko pare bat aurkitu eta pozaderan bete zituztenean, barroteen artetik ezin zituztela sartu konturatu ziren, estuegiak zirelako. Egardia hiltzeko esperantzarekin, leihoan jartzeko borrokan mendean hartzen zituztenen garrasiak erdiragarriak ziren zinez. Baina murkoak jaso zituzten soldaduek, sartu ezinez, berriro lurrean utzi zituztenean, are beldurgarriagoa izan zen desilusioaren iskanbila.

Independentziaren aldeko gudarosteko soldaduek ez zuten kantinplorarik erabiltzen. Azkenean latorrizko ontzi bat aurkitu zuten; baina halako zirrara sortu zen leihora hurbildu zutenean, halako oinaze eta amorru uluak aurpegi egarrietatik leihorantz luzatzen ziren besoek masa itxuragabea, non Santierra tenienteak oihuka agindu baitzuen:

–Ez, ez; atea zabaldu behar duzu, sarjentua.

Sarjentuak soinak jaso eta, giltza eduki baleuka ere, atea zabaltzeko baimenik ez zuela erantzun zion. Baina ez zeukan giltzarik, gainera. Gotorlekuko komandante-laguntzaileak zeuzkan giltzak. Gizon haiek istilu asko ari ziren sortzen, alfer-alferrik, edozein modutan ere ilunabarrean hiltzera zihoazen-eta. Eta ez zuen ulertzen zergatik ez zituzten behingoz

akabatu goizean goiz.

Santierra tenienteak leihoari bizkar emanaz jarraitzen zuen, nahita. Berak eskatu ziolako atzeratu zuen komandanteak presoan hiltzea. Bere familia ospetsuaren begiramenez eta aitak Errepublikazaleen alderdiko buruzagien artean zuen goreneko tokiari esker egin zion mesede hori. Santierra tenienteak uste zuen jeneral buruzagia arratsalde hartan bertan gotorlekura bisita egitekoa zela, eta bere xalotasunean itxaropena zuen bere esku hartze asmo onekoak gaizkile haietako batzuei behintzat barkazioa ematera samurtuko zuela jaun zorrotz hura. Gero, sentimenduak bat-batean aldatuz, arauz kontrako eta alferreko mutur-sartzea iruditzen zitzaion esku hartze hura. Eta begi-bistakoa iruditu zitzaion jeneralak ez ziola eskabidea entzun ere nahi izango. Dohakabe haiek ez zituen inola ere salbatuko; alderantziz, haien zoritxarraren ankertasunari gehitutako sufrikarioen erruduna izango zen.

–Ba, zoaz oraintxe bertan laguntzailearengana eta eskatu giltzak –esan zion Santierra tenienteak.

Sarjentuak burua mugitu zuen, irribarre muker moduko batez, eta bien bitartean barrotean artean geldi eta isilik, beste aurpegi horizta, mudatu, izumenezkoek eratzen zioten atzealdetik nabarmendurik agertzen zen Gaspar Ruizen aurpegiari begiratzen zioten zeharka haren begiek.

Gotorlekuko komandante-laguntzaile jauna siestan zegoen; eta harengana sartzen utziko ziotela emanik ere, haren loa eten nahi izanagatik arima gorputzetik bereizi araztea besterik ez zuen espero horrekin lortzerik. Gaitzespen keinu bat egin zuen eskuez, eta geldirik jarraitu zuen, begirada bere oinetako behatz ilunetara apaldurik.

Santierra tenienteak haserre begiratu zion, baina zalantza egin zuen. Aurpegi borobil ederra, neska batena bezain leuna, gorritu egin zitzaion, bere zalantzaz lotsaturik. Zalantzaren izaerak apalarazten zuen. Goiko ezpain bibotegabeak dardara egiten zion; haserrearen haserrez oihuka edo kemen faltaz negarrez hasteko puntuan zirudien.

Handik berrogeita hamar urtera ere, Santierra jenerala, iraultza garaietako erlikia beneragarria, gauza zen teniente gazte haren sentimenduak gogoratzeko. Zaldiz ibiltzeari utzi eta lorategiaren mugetatik kanpora irtetea ere kosta egiten zitzaionez, kaira iristen ziren atzerriko eskudretako ofizialak etxean bisitan hartuz izaten zuen beterano hark gozamenik handiena. Ingelesak izaten zituen nahien, behinolako arma-lagunak balitu bezala. Ingeles armadako edozein gradutako marinelek jakin-minez onartzen zioten abegi on hura, lord Cochrane ezagutu baitzuen, eta marinel handi haren agindupean parte hartu, gainera, abertzaleen ontzidian, Callaoko portua blokatzeko operazioetan –Independentziako gerretako itsas ekintza handi eta ezin ahaztukoan, hain zuzen, Ingalaterraren gerrako tradizioen ohorerako–. Hizkuntzalari trebea zen Askatasun-gudarosteetatik bizirik geratutako agure hura. Ingelesez edo frantsesez hitzen batek huts egiten zionean, bizar zuri luzea leuntzeko trikimailuak halako duintasun sosegatuzko itxura bat ematen zion bere oroitzapenen doinuari.

«Bai, adiskideak –esan ohi zien solaskideei–, zer nahi duzue bada? Hamazazpi urteko mutil gaztea, munduaren esperientziarik batere gabe, eta militar gradua aitaren, goian bego, abertzaletasun suharrari zor niola, ikaragarrizko lotsaria pairatu behar izan nuen, ez batez ere neure mendeko hark desobeditu zidalako, bera baitzen azken finean presoan erantzukizuna zuena, baizik eta, mutiko bat baizik ez nintzelarik, halakoxea bainintzen, komandante-laguntzailearengana joan eta giltza eskatzeko beldur nintzelako, hain zuzen. Lehenago ere entzuna nintzen haren hizkera garrantz takarra. Ausardia basatia beste meriturik ez zuen gizaje arrunt bat baizik ez zelarik, gotorleku hartan nire batailoira azaldu nintzen lehenengo egunetik bertatik sentiarazi zidan bere mespretxua eta aiherkundera. Hamabost egun lehenago, hori! Pozik desafiatuko nukeen ezpataz, baina haren burlen zakarkeria isekariak kikiltzen ninduen.

«Ez dut gogoan nire bizitza guztian, ez lehenago eta geroztik, orduan bezain dohakabe sentitu izanik. Nire sentimenduaren oinazea hain zen handia, non pozik ikusiko bainukeen sarjentua nire oinen aurrean hilda erori izan balitzait, eta hilotz bihurtu izan balira begira neuzkan soldadu saskarrak; eta baita nire eskariez beren akabera atzeratzea baizik lortu ez nien dohakabe haiek, zeren ezin bainien aurpegira begiratu lotsarik sentitu gabe. Bero kirastu bat ateratzen zen presoak itxita zeuden leku ilunetik, infernutik letorkeen bafada bat balitz bezala. Leihoan zeudenak, zer gertatzen zen entzunda, etsimenez trufatzen ziren nitaz; haietako bat, burutik eginda, inondik ere, soldaduei leihotik barrura tiroka hasteko agintzeko erregutzen hasi zitzaidan hitz-jario batean. Haren hitz-jario zoroak ahul sentiarazten zidan. Eta oinek berunezkoak ziruditen. Eta ez zegoen beste ofizialik, norengana jo. Eta besterik gabe handik alde egiteko kemenik ere ez nuen.

«Kontzientziako kezkak soraioturik, leihoari bizkarrez jarraitzen nuen. Ez pentsa, ordea, horrek guztiak luzaro iraun zuenik. Zenbat? Minutu bat? Nire larriduraz neurtuz gero, mende bat adina; nire ordu arteko bizitza guztia baino luzeago. Ez, minutu batera ere ez zen iritsi, seguru. Zorigaitzoko preso haien ahots erlastuak beren eztarri lehorretan itotzen zitzaizkien eta, horretan, ahots batek hitz egin zuen, ahots sakon batek, bare-bare. Biratzeko hots egiten zidan.

«Ahots hura Gaspar Ruizen ahotik zetorren, señores. Gorputzarenik ezer ez nion ikusten. Ziega-kide batzuk bizkarrera igota zeuzkan. Gainean eusten zien. Begiak kliskaka zituen, niri begiratu gabe. Bazirudien hura eta ezpainen mugimendua zela karga haren azpian egin zezakeen gauza bakarra. Eta biratu nintzenean, buru hark –beste buru pila baten azpian haren lepo gainean ezein gizakirena baino handiagoa zirudien–, egiaz presoan egarria arindu nahi al nuen galdetu zidan.

«–Bai, bai –erantzun nion bizi, eta leiho ondora hurbildu nintzen. Haur bat bezalaxe ari nintzen, eta ez nekien zer gertatu behar zuen. Bihozmina eta ezintasuna arindu ziezadaten nahi nuen.

«–Ba al duzu aginpiderik, señor teniente, nire eskumuturrak askarazteko? –galdetu zidan Gaspar Ruizen buruak.

«Haren aurpegierak ez zuen ez antsiarik ez itxaropenik erakusten; betazal astunak nire gainetik patiora begiratzeko zuten begien gainera erortzen zitzaizkion.

«–Zer esan nahi duzu? –esan nion, zezelka, amesgaizto batean banengo bezala–. Eta nola kenduko dizkizut eskumuturrak lotzen dizkizuten loturak?

«–Saiatuko naiz –esan zuen, eta buru handi, finko hura mugitu zen azkenean, eta leiho hartan pilatuta zeuden aurpegi basati guztiak desagertu ziren, lurrera erorita. Mugimendu bakar batez astindu zuen zama osoa, hainbestearinoko indarra baitzuen!

«Eta ez astindu bakarrik, baizik eta zanpaketatik askatu eta nire bistatik desagertu zen. Une batek ez zen inor ikusten leihoan. Buruaz eta bizkarraz batera eta bestera joz inguruak astindu eta eskuak atzean lotuta zeuzkala egin zezakeen modu bakarrean zabaldu zuen lekua beretzat.

«Azkenean, leihoari bizkarra emanez, barren artetik eskumuturrak, hainbat soka-biraz lotuak, luzatu zizkidan. Haren eskuak, arras handituak, zaintsuak, ikaragarri handiak eta baldarrak iruditu zitzaizkidan. Haren bizkar gihartsua ikusi nuen. Oso zabala zen. Ahotsa, zezen baten marrua bezalakoa.

«–Moztu, señor teniente! Moztu!

«Ezpata atera nuen, artean zerbitzuan erabili gabe nire espata berri-berria, eta hede-loturak ebaki nizkion. Zergatik egiten nuen eta zer ondorio izango zuen ohartu gabe egin nuen hori, gizon harengan nuen fedea bultzatuta ari banintz bezala. Sarjentuak oihera egin behar zuela zirudien, baina harridurak ahotsa eragotzi zion, eta geldirik geratu zen, aho zabalik, kolpetik erabat ergeldu izan balitz bezala.

«Ezpata berriro zorroan sartu eta soldaduengana biratu nintzen. Harridurazko ikusmin batek hartu zuen haien ohiko apatia gogogabearen lekua. Barruan Gaspar Ruizen ahotsa entzun nuen, baina ez nituen hitzak bereizten. Eskuak libre zituela ikusi zutenean, iruditzen zait are indartsuagoa bilakatuko zela haren indarraren eragina, jende ezjakinak gorputz bereziki indartsu bati aitortu ohi dion eragin espirituala, esan nahi dut. Hain zuzen ere, ez zen lehen baino beldurgarriagoa, haren beso eta eskuen zurruntasuna kontuan hartuta, ez baitzitzaion berehalaxe arindu.

«Sarjentuari hitz egiteko ahalmena itzuli zitzaion.

«–Santu guztien izenean! –hasi zen oihuka–. Zaldun bat ekarri beharko dugu, lakioarekin lotzeko, hiltzeko lekura eraman behar badugu. Enlazador on bat beharko da, zaldi

on batean, hori menderatzeko. Ez daki ondo berorrek nolako erokeria egin duen.

«Ez nekien zer erantzun. Harrituta nengoen neu ere, eta haur baten jakin-mina nuen zer gertatu behar zuen ikusteko. Sarjentuak, ordea, eskarmentua emateko garaian Gaspar Ruiz menderatzeko izango zen zailtasuna zerabilen buruan.

«—Edo atea zabaldu eta kanpora ateratzen denean egin beharko diogu tiro —jarraitu zuen nahigabezko doinu batez. Sententzia betetzeko modu egokiaz zituen kezka azaltzen jarraitzera zihoan; baina bat-batean deiadar eginez eten, soldadu bati fusila eskuetatik kendu eta begira geratu zen begiak leihoan finko zituela.

«Gaspar Ruiz, leiho-arasara igorik, hantxe zegoen eserita, oinak hormaren lodieraren kontra eta belaunak tolestu samarrak zituela. Leihoa ez zen hankak luzatzeko bezain zabala. Nire etsimenerako, iruditzen zitzaidan beretzat nahi zuela leiho osoa. Postura eroso hartu nahi zuela zirudien. Barruko inor ez zen ausartzen, orain eskuak jotzeko libre zituela, harengana ondoratzen.

«—Por Dios! —entzun nion esaten sarjentuari nire ondo-ondoan—, bala bat sartuko buruan oraintxe, eta kito arazoak. Kondenatuta dago.

«Haserre begiratu nion.

«—Jeneralak ez du berretsi sententzia —esan nion, nahiz eta ondotxo jakin nire barrenean, funtsik gabeko hitzak baizik ez zirela haiek. Sententziak ez zuen berrespen beharrik—. Hori hiltzeko eskubiderik ez duzu, ihes egiten saiatzen ez bada behintzat —gehitu nion irmo.

«—Ba, sangre de Dios! —esan zuen orroka sarjentuak, fusila bizkarrera jasoz—, oraintxe ihes egiten ari da. Begira!

«Baina, Gaspar Ruizek sorgindu izan banindu bezala, fusilari kolpe bat eman nion gora, eta bala teilatuen gainetik joan zen hegan norabait. Sarjentuak arma lurrera bota eta bertan geratu zen geldirik. Bazuen soldaduei tiro egiteko agintzea, baina ez zien agindu. Eta agindu izan balie, ez dut uste obedituko ziotenik, une hartan behintzat.

«Hankak hormaren loditasunaren kontra eta esku iletsuak burdinazko barrari helduta, Gasparrek eserita jarraitzen zuen. Egoteko modu bat zen. Une batez ez zen ezer gertatu. Eta bat-batean garbi ikusi genuen bere bizkar konkortua atzerantz zuzentzen eta besoak tenkatzen ari zela. Ezpainak ufaka zimurtuta zeuzkan. Hurrengo gauza, haren indar harrigarriaren eraginez, burdina forjatuzko barra okertzen ari zela ohartu ginen. Eguzkiak bete-betean jotzen zuen haren aurpegi zurrundu, irmoa. Bekokitik turrustan zerizkion izerdi-tantak. Burdinazko barrari begira, odol-jarriotxo bat ikusi nuen Gasparren azkazalen azpitik irteten. Orduan jaregin egin zion. Une batez hantxe geratu zen, kuzkurtuta, burua zintzilik, lozorrotuta balego bezala bere esku biratuen ahurrei begira. Loak hartuta zegoela zirudien, egiaz. Bat-batean, ordea, leiho-arasaren kontra oldartu zen, oinazpiko zola biluziak erdiko beste barrote baten kontra bermatu eta okertu egin zuen hura ere, baina lehenengoaren kontrako alderantz.

«Hainbestearinoko indarra zuen, non une hartan arindu egin baitzizkidan nire gogoeta saminak. Eta bazirudien ez zuela ezer egin. Bere oinez baliatzeko jarreraz aldatzea salbu —horretan denak harritu gintuen haren bizkortasunak—, haren gelditasuna baizik ez dut

gogoratzen. Baina arras zabaldu zituen barroteak. Eta orain bazuen kanpora irtetea, nahi izan balu; baina hankak barru aldera zintzilikatu zituen; eta, bizkar gainetik begiratzuz, soldaduei deitu zien.

«—Ekarri ur hori —esan zien—. Edaten emango diet.

«Obeditu egin zioten. Murkoa eta gizona irrikazko amorruak itota desagertuko zirela uste izan nuen une batez; hortzaka lurreratu behar zutela. Izan zen oldarraidi bat, baina Gasparrek, murkoa altzoan zuela, oinen balantzada batez uxatu zuen dohakabe haien eraso. Ostikada bakoitzeko atzeraka erortzen ziren, oinazez oihuka; eta soldaduek barre egiten zuten leihora begira.

«Denak ari ziren barrez, sabelari eutsiz, sarjentua salbu; hark goibel eta muker jarraitzen zuen. Presoak altxatu eta ihes egingo ote zuten beldur zen, eta hori etsenplu txarra izango zatekeen. Baina ez zegoen zertan beldur izanik, neu ere leihoaren aurrean nengoen, ezpata aterata. Gaspar Ruizen indarrak nahikoa otzandu zituenean, banan-banan ondoratu zitzaizkion, lepoa luzatuz eta ezpainak erraldoi hark altzotik halako onginahi, adeitasun eta erruki harrigarri batez luzatzen zien murkoaren ertzera eramanez. Onginahi-itxura hura urik alferrik ez galtzeko jartzen zuen arretaren eta leiho-aran eserita zegoen moduaren ondorioa zen, noski; zeren, presoren bat, Gaspar Ruizek “Aski duzu” esan ondoren ezpainak murkoari erantsita luzatzen baldin bazen, ez baitzen samurtasunik edo errukirik ziega barrenera, zokoan erori baino lehen bidean bizpahiru kide botata, orroka eta bitan tolestuta bidaliko zuen ostikadan. Behin eta berriro etortzen zitzaizkion ondora; bazirudien pozadera osoa hustu nahi zutela hiltzera joan baino lehen; baina soldaduei hain jostagarria iruditzen zitzaien Gaspar Ruizen banaketa sistematikoa, non alai eta pozik ekartzen baitzuten ura leihora.

«Komandante laguntzailea siesta egin ondoren azaldu zenean, arazoak izan ziren kontu horrekin, ez izan dudarik. Eta okerreana, espero genuen jenerala ez zela etorri gotorlekura egun hartan».

Santierra jeneralaren gonbidatuek aho batez adierazi zuten hainbesteko indarra eta horrelako pazientzia zuen gizon bat salbatu ez zelako pena.

«Ez zen salbatu nire eskuhartzeagatik —esan zuen jeneralak—. Presoak eguzki-sarrera baino ordu erdi lehenago eraman zituzten hil behar zituzten lekura. Sarjentuaren beldurrak gorabehera, Gaspar Ruizek ez zuen inolako arazorik sortu. Ez zen zaldunik ekarri beharrik izan, lakioarekin, hura menderatzeko, landetako basazezen bat balitz bezala. Beste preso lotuen artean eskuak libre zituela joan zen, nik uste. Ez nuen ikusi. Ez nengoen han. Atxilo nengoen, presoen guardiari zegozkion kontuetan sartu nintzelako. Ilunabarrean, nire gelan

triste eserita, hiru tiro-zaparrada entzun nituen, eta Gaspar Ruiz berriro ez nuela ikusiko pentsatu nuen. Besteekin batera erori zen. Baina entzutekoak ginen haren berri, hala ere, sarjentuak harro esanagatik hildakoen pilan hiltzen edo hilda ikusi zuelarik, bere ezpataz moztu ziola lepoa. Mundua traidore beldurgarri batez libratzen zuela seguru egoteko egin omen zuen hori.

«Zinez aitortzen dizuet, señores, halako esker on pixka batez eta miresmen puntu batez gogoratzen nuela beti gizon hura. Prestutasunez baliatu zen bere indarrak. Haren ariman ez zen, inondik ere, haren gorputzaren indarrari legokiokeen aberekeriarik».

Gaspar Ruiz, ziegako burdinazko barrore astunak aise zabal zitzakeena, besteekin batera eraman zuten heriotza lekura. “Bala orok bere itua” dio atsotitzak. Laburtasuna eta adierazkera bitxia dira atsotitzen meritu bakarra. Irudimenean eragiten diguten ustekabeko zirraran datza konbentzitzeko duten ahalmena. Beste era batera esanda, zirrarak jotzen eta konbentzitzen gaitu.

Formak harrapatzen gaitu ustekabean, ez mamiak. Atsotitzak artea dira, arte merkea. Ez dira egiak, oro har; inozokeria hutsak ez direnean, honako hauek bezala: “txoria eskuan hobe, arranoa airean baino” edota “gutxiagatik huts egin, askoagatik huts egin, trenak alde egin”. Esaera batzuk ergelkeria hutsak dira, beste batzuk inmoralak. Errusiar herri handiaren bihotz bakunetik ateratako beste hura –“Gizonak egiten du tiro, baina Jainkoak eramaten bala”– deboziozko basakeria bat da, eta kontraesan bortitza du Jainkoa errukitsu baten ideia onartuarekin. Pobreen, errugabeen eta behartsuen babeslearen nahiko eginkizun kontraesankorra izango bailitzateke, izan ere, bala aita baten bihotzera eramatea, esate baterako.

Gaspar Ruizek ez zuen haurrik, ez zuen emazterik, inoiz ez zen maiteminduta egon. Emakume batekin ozta-ozta inoiz hitz egin zuen, amarekin eta azala errautsaren kolorekoa zuen adinak bitan tolestutako etxeko neskame zahar beltz iharrarekin ez bazen. Hamabost pausotara disparatutako fusilen bala batzuek Gaspar Ruizen bihotza baldin bazuten ere jomuga berezia, huts egin zuten denek. Batek, alabaina, belarriko puskatxo bat kendu zion, eta beste batek bizkarreko haragi puska bat.

Purpurazko ozeano batean hondoratuz zihoan eguzki gorri, hodeigabeak begirada suhar bat egiten zuen mendikateko horma erraldoirantz, bere iraungitzearen lekuko duina bailitzan. Baina ezin pentsa daiteke eguzkia gizakiei begira egon zitekeenik: inurriak bailiran, elkar hiltzeko eta hilik geratzeko ahalegin zentzugabe eta hutsaletan, zergatik eta umekeria hutsak izan ez ezik, ulertu ere batere ongi ulertzen ez ziren arrazoiengatik. Hala ere tiratzaileen bizkarrak eta kondenatuen aurpegiak argitzen zituen. Batzuk belaunikatu egin ziren, beste batzuk zutik zeuden oraindik, beste batzuek buruak biratu eta ez zuten begiratzen fusilen kanoi jasoetara. Gaspar Ruiz, denetan handienak, zutik, burua makurtuta zeukan. Eguzki beheatuak itsutu egiten zuen zertxobait, eta dagoeneko hiltzat ematen zuen bere burua.

Lehenengo tirokadarekin batera erori zen. Hilda zegoela uste zuelako erori zen. Astun-astun jo zuen lurra. Erorikoaren kolpeak harritu zuen. “Itxura denez ez nago hilda” pentsatu zuen, agindua eta hiltzaileen pelotoia berriro fusilak kargatzen entzun zuenean. Orduantxe piztu zitzaion lehenengo aldiz ihes egiteko itxaropena. Luze geratu zen etzanda, gorputz

atalak zurrun, bizkar gainean gurutzaturik erorita zeuzkan bi gorputzen pisuaren azpian.

Soldaduek azkeneko inarrosaldietan zeuden erorien pilari hirugarren tiro-zaparrada bat bota ziotenerako, eguzkia desagertua zen eta, ozeanoa iluntzearekin batera, iluntasuna zabaldu zen errepublika gaztearen itsasertzetan. Behe-lurretako iluntasunaren gainean, mendikateko gailur elurtuak luzaro geratu ziren argitan gorriturik. Soldaduak tabakoa erretzeko eseri ziren, gotorlekura itzuli baino lehen.

Sarjentua, ezpata eskuan biluzik zuela, hildakoen artetik zebilen. Bihotz oneko gizona zen, eta gorputz atalen baten mugimendu edo ikara oro zelatatzen zuen, bizi-zantzurik arinena ematen zuen edozein gorputzetan bere lamaren muturra hondoratzeko errukizko asmoz. Baina gorputz haietako batek ere ez zion eskaintzen bere karitatezko asmoa gauzatzeko aukerarik. Gihar bat bera ere ez zen mugitzen haien artean, ezta Gaspar Ruizen gihar indartsuak ere, inguruko odoretan blai eta hildako itxura eginez, gainerakoak baino hilago zegoelako itxura egiten ari baitzen ahalegintzen.

Ahuspez zegoen. Luzeragatik ezagutu zuen sarjentuak eta, bera oso txikia zenez, bekaitzez eta mespretxuz begiratzen zion hainbesteko indarra hantxe lurrean ikusita. Beti gorrotatu izan zuen soldadu hura. Aiherkunde ilun batek bultzaturik, ebaki luze bat egin zion lepoan, gizon indartsu hura hilda zegoela seguru egoteko, nolabait, gorpuzkera sendo batek balei aurre egiteko ahalmen handiagoa balu bezala. Sarjentuak ez baitzuen zalantzarik leku bat baino gehiagotan igaro zutela balek Gaspar Ruizen gorputza alderik alde. Orduan leku hura utzi, eta handik pixka batera bere soldaduekin urrundu zen, gorputzak beleentzat eta putreentzat utzirik.

Gaspar Ruizek ez zuen oihurik egin, lepoa kolpe batez ebakitzen ziotela iruditu bazitzaion ere; eta ilundu zuenean, azpian zeukaten gorpuen pisua gaineratik kendu eta arrastaka joan zen zabalduan zehar, eskuen eta belaunen gainean ibiliz. Piztia zauritu baten gisan, azaleko errekatxo batean luzaro edan ondoren, zutitu, eta balantzaka eta zorabiatuta abiatu zen, nora gabe, gau argi hartako izarren artean galdurik balego bezala. Bere aurrean lurretik etxetxo bat azaltzen zitzaiola iruditu zitzaion. Estropezuka atarian sartu eta ukabilaz atea jo zuen. Argi izpirik ere ez zen ageri. Bere ate-kolpeei erantzun zioten irain-hotsengatik izan ez balitz, Gaspar Ruizek pentsa zezakeen ihes eginak zirela etxe hartako biztanleak, inguruko beste asko bezala. Ahulezia eta sukar hartan, eldarnioaren ondorioa iruditu zitzaizkion oihu haserre haiek, espero ez zuen heriotza-kondenarekin, pairatutako egarriarekin, hamabost pausotako distantziatik egin zizkieten tiroekin eta burua moztu nahi zion ezpata-kolpearekin batera nahasturik.

–Zabaldu atea! –egin zuen oihu–. Zabaldu atea, Jainkoaren izenean!

Ahots haserre batek erantzun zion barrutik:

–Sartu, sartu. Etxe hau zurea da. Eta lur hau guztia ere bai. Sartu eta hartu.

–Jainkoaren izenean! –esan zuen Gaspar Ruizek xuxurla batean.

–Lurralde osoa ez al da bada zuena, abertzaleena? –egin zuen oihu ateaz beste aldeko ahotsak–. Ez al zara abertzalea, bada?

Gaspar Ruizek ez zekien.

–Zauritu bat naiz –esan zuen gogorik gabe.

Barruan dena isildu zen. Gaspar Ruizek hartuko zuten itxaropena galdu zuen eta etzanda gelditu zen, atarian ate ondoan. Ez zion batere axola zer gerta zekioken. Lepoan jarria zeukan arreta guztia, oinaze bizia sentitzen baitzuen han. Gertatu behar zitzaionaren ezaxola hura erabatekoa zen.

Sukar-loaldi batetik esnatu zenerako eguna argitzen ari zuen; ilunpetan jotako atea zabal-zabalik zegoen orain, eta neska bat atalasetik bereganantz makurtuta zegoen, besoak zabaldua. Gaspar Ruizek, bizkarrez etzanik, begiratu egiten zion. Aurpegia zurbila zuen eta begiak beltz-beltzak; ilea, ebanoa bezain beltza, masaila zurien gainera eroria; ezpainak, beteak eta gorriak. Haren atzean beste buru bat ikusi zuen, ile gris luzea eta aurpegi ihar zaharra, kokospean esku pare bat egonezinez estuturik.

«Ikustez ezagutzen nituen –esan zien Santierra jeneralak afaltzeko mahairatuta zeuzkan gonbidatuei–. Gaspar Ruizi babesa eman ziotenak, esan nahi dut. Aita espainiar zahar bat zen, iraultzak porrot eginarazitako lurjabea. Lursailak, herrian zuen etxea, dirua, munduan zuen guztia konfiskatu zioten dekretuz, gure independentziaren etsai amorratua zelako. Erregeordearen Kontseiluan duintasun eta eragin handiko lekua izatetik, gure aintza handiko iraultzak askatutako bere esklabo beltzak baino ezerezago bilakatu zen. Beste espainiar askok bezala lurralde honetatik ihes egiteko modurik ere ez zuen. Litekeena da, erreka jota, etxerik gabe eta noraezean zebilela, bere bizitza beste zamarik gabe –eta hura ere Behin-behineko Gobernuaren errukiak barkatua–, teila zaharrezko aterpe erori hartan sartu izana, besterik gabe. Leku bakarti bat zen. Bazirudien etxeko txakurrik ere ez zegoela han. Baina sabaian zuloak baziren ere, kanoi-balaren batek edo bestek zulatu izan balute bezala, zurezko kontraleihoak lodiak ziren, eta ondo itxita egoten ziren denbora guztian.

«Nire ibiliek maiz eramaten ninduten miseriazko rantxo haren aurreko bidetik. Ia arratsero joaten nintzen gotorlekutik hirira, maite nuen dama baten leihoari begira hasperen egitera. Gaztea zarenean, badakizu... Abertzale zintzoa zen, egon zintezkete seguru. Caballeros, sinistuko didazue ala ez didazue sinistuko, baina hainbesterainokoa zen garai hartan jaidura politikoa non ez baitut uste erregezaleen aldeko emakume baten xarmak inola ere liluratuko nindukeenik...

Sinesgogortasun jostarizko marmar batzuek eten zuten jeneralaren solasa; eta marmarrek zirauten bitartean berak oso serio igurzten zuen bizarra.

«Señores –kexatu zen–, Erregezaleak munstroak ziren gure sentimendu asaldatuentzat. Niregan erregezale zahar haren alabarekiko samurtasunik txikiena ere zenik pentsa ez dezazuen esaten dizuet hau. Badakizue, gainera, beste norabait jotzen zuela nire atxikimenduak. Baina horrek ez zidan eragozten etxeko atea zabalik zela atarian egoten zen bakanetan hari erreparatzea.

«Jakin behar duzue gizon bat izan daitekeen eroena zela erregezale zahar hura. Bere zoritxar politikoez, bere erabateko gainbeherak eta porrotak erabat nahastuta zeukaten. Abertzaleek egin zezaketen orori zion mespretxua adierazteko, barre-itxurak egiten zituen bere espetxeratzeaz, bere lursailen bahituraz, bere etxeak erre izanaz eta bere eta bere emakumeen miseria egoeraz. Barre egiteko ohitura hori hainbesteraino nagusitu zitzaion non barre-algaraz hasten baitzen ezezagun bat ikusi orduko. Eromen hori zuen.

«Nik, noski, ezentzuna egiten nion ero haren zaratari, guri, amerikarroi, gure kausaren arrakastak ematen zigun nagusitasun-sentimendu harekin. Egiaz, iruditzen zait gaztelar zaharra, Espainian jaioa eta erregezalea zelako erdeinatzen nuela. Ez ziren gizon bat mespretxatzeko arrazoiak, zinez; baina espainiarrek mende luzetan erakutsi izan ziguten beren erdeinua amerikarroi, haiek bezain prestuak izan arren, beraiek kolono deitzen zutenak ginelako, besterik gabe. Menderaturik eduki gintuzten, eta gizarte-harremanetan mendekotasun hori sentiarazten. Eta orain gure txanda zen. Guretzat, abertzaleontzat, zilegi zen horrelako sentimenduak adieraztea; eta abertzale gaztea, abertzale baten semea nintzenez, mespretxua nion espainiar zahar hari eta, hari mespretxua nionez, ez nituen aintzat hartzen haren laidoak, nire sentimenduentzat samingarriak baziren ere. Beste batzuek ez zuketen horren pairakor jokatu, beharbada.

«Oihu batez hasten zen beti “Hona abertzale bat. Beste bat!” ni ate aurretik igaro baino nahikoz lehenago. Haren zentzugabeko irainen tonua, barre-algarekin nahasia, sarkorra izaten zen batzuetan, eta batzuetan sakona. Erotuta zegoen erabat; baina iruditzen zitzaidan duintasunak eskatzen zidala nire zaldia pausuan jartzeko, etxerantz begiratu ere gabe, atariko gizonaren irainezko oihuak txakur baten zaunka baino gutxiago balira bezala. Aurrera jarraitzen nuen, aurpegian ezaxola harrozko espresio bat jarririk.

«Oso jarrera duina zen, zalantzarik gabe; baina hobe nukeen begiak ondo zabaldu izan banitu. Soldadu batek, gerra garaian, inoiz ez luke pentsatu behar zerbitzutik libre dagoenik; are gutxiago iraultza-gerra bat baldin bada, etsaia atez kanpo ez baina zeure etxean dagoenean. Horrelako uneetan konbentzimendu kartsuen suhartasuna gorroto bilakatzen da, eta ohorearen eta gizalegearen hertsadurak kentzen dizkie gizon askori, eta emakume batzuei adeitasunarenak eta beldurrarenak.

«Emakumeak, hain zuzen, beren sexuaren herabetasuna eta neurritzotasuna galdurik, erraldoi ongi armatuak baino arriskutsuagoak bihurtzen ditu beren adimenaren zorrotzasunak eta erresumin errukigabearen bortiztasunak.

Jeneralak ahotsa goratu zuen; baina haren esku handiak bi bider igurtzi zuen bizar zuria, halako baretasun beneragarri batez.

«Sí, señores. Emakumeak gai dira gizonontzat ezin iritsizkoak diren suhartasunezko gailurretara iristeko, edo baita gure gizonezko aurreiritziengatik txundituta uzten gaituzten degradaziozko amildegietan hondoratzeko ere. Ohiz kanpoko emakumez ari naiz, ulertzen ahal didazue...».

Horretan, gonbidatuetako batek ohartarazi zuen berak ez zuela inoiz topatu

sentimenduak bortizki ukitzen zizkion egoera batean modu berezian agertzeko gauza ez zen emakumerik. «Ausarkeriarako gure aldean duten gailentasun-edo horrexek egiten ditu gizadiaren erdirik interesgarriena» –bukatu zuen esanez.

Jeneralak oso serio entzun zion eten zionari eta jendetasunez baietsi zion buruaz.

«Bai. Bai. Egoera batzuetan... Horixe. Gai dira batzuetan ezin konta ahala oker egiteko, gutxien espero den moduan. Zeren norik imajina zezakeen bizitza etsaien mespretxuari esker baizik gordetzen ez zuen erreka jotako erregezale baten alaba gazte bat gai izango zenik bi probintzia aberatsetan heriotza eta ausiabantza zabaltzeko eta iraultza gailentzen ari zen une-unean haren buruzagiei oso kezka larriak eragiteko!» —Isildu egin zen, esandakoak gurean txundimena zabal zezan.

«Heriotza eta ausiabantza –xuxurlatu zuen norbaitek hunkiturik–, izugarria! –Jeneral zaharrak begirada bat bota zuen esan zuenaren aldera eta jarraitu zuen:

«Bai. Gerra hain zuzen, zoritxarra. Baina gure hegoaldeko mugetan triskantza haiek egiteko aukera eman zion medioa are izugarriagoa iruditzen zait niri, nik ikusi eta hitz egin bainuen berekin. Nire geroztiko bizitzako esperientziak, berrogeita hamar urtetik gorakoak, ezertan leundu ez didan txundidura izugarri bat utzi zidan egitate horrek zehazki».

Adi geundela seguru egoteko ingurura begiratu eta doinua aldatu zuen:

«Ni, errepublikazalea naiz, badakizue, Askatzaile baten semea –argitu zuen–. Nire ama berdingabea, Goian bego, frantsesa zen, errepublikazale sutsu baten alaba. Gaztetan askatasunaren alde borrokatu nintzen; beti sinetsi izan dut gizakien berdintasunean; eta baita gizakien anaitasunean ere, are eta gauza ziurragoa baita nire iritzirako. Begira nolako herra erakusten duten beren tirabiretan. Eta ezagutzen al duzue munduan anai arteko liskarrak baino saminagorik eta ankerragorik?».

Zinismorik ezak ito zituen gizakien anaitasunaren ikuspegi horrek eragin zitzakeen irribarreak. Alderantziz, haren doinuan bazen errotik gizatiarra izan baina betebeharrak, konbentzimenduak eta premiak behartuta bortizkeria ankerreko eszenetan parte hartu izan duen gizonak ohi duen malenkonia-puntua.

Anai arteko borroka asko ikusia zen jenerala.

«Gizakien arteko anaitasunaz zalantzarik ez da, noski —errepikatu zuen—. Gizon guztiak dira anaiak eta, hala direnez, gehiegitxo dakite elkarri buruz. Baina —eta haren begiek umorezko kliska bat egin zuten, une honetan, zilarra bezain zuria zirudien haren patriarka-buruan—, gu guztiok anaiak bagara, emakumeak ez dira guztiak gure arrebak».

Entzule gazteenetako batek adostasunezko murmur bat egin zuen, hori zela-eta. Jeneralak, ordea, aurrera jarraitu zuen, adore bizi batez:

«Hain dira desberdinak! Bere tronuan partaide izateko neska txiro bat hartu zuen erregearen ipuina aski polita izan liteke gizonok geure burua eta maitasuna nola ikusten ditugun adierazteko. Baina bere edertasun harroagatik ezaguna zen neska gazte batek, Erregeordearen jauregiko dantzaldi guztietan miretsia zenak, artean aspaldi ez zela guaso bati, nekazari arrunt bati eskutik heldu izana, onartezina zen emakumez eta haien maitasunaz dugun iritziarentzat. Erokeria zen. Baina gertatu egin zen. Esan beharra dago, hala ere, haren kasuan gorrotozko eromena izan zela, ez maitasunezkoa».

Gizalegezko zintzotasun-desira batez horrela ederretaturik, une batez isilik geratu zen Jenerala.

«la egunero igarotzen nintzen zaldiz haren etxe aurretik —hasi zen berriro— eta horixe gertatzen zen barruan. Baina nola gertatzen zen, ez dago ulertzerik. Neskaren desesperazioa ezin gehiagorainokoa zen, inondik ere, eta Gaspar Ruiz mutil otzana zen. Esaneko soldadua izan zen beti. Lurrean utzi eta handik jasotzen duen eskuak nora jaurti, hara jotzeko prest dagoen harriztar baten antzekoa zen haren indarra.

«Garbi dago behar zuen babesaren ematen ziotenei bere historia kontatu ziela, nonbait. Eta laguntza-premia larria zuen, izan ere. Zauria ez zuen arriskuzkoa, baina bizitza galduan zuen. Erregezale zaharrak, bere eromen irrigarrian nahasturik zegoenez, bi emakumeek ezkutaleku bat antolatu zuten zaurituarentzat etxe-osteko fruitu-arbolen arteko etxoletako batean. Gordezulo hura, sukarra zuen bitartean ur garbi ugari, eta errukizko hitz batzuk, horixe zen eman ziezaioketen guztia. Eta han zegoen janari pixarra ere banatuko zuten, nik uste. Ez askorik, inondik ere: eskutadaren bat arto txigortu, indaba-plateren bat agian, edo ogi puskaren bat piku batzuekin. Halakoxe miseriatan hondoratuta zegoen behinola aberatsa izandako jende harro hura».

Santierra jeneralak arrazoia zuen bere susmoetan. Horixe zen, izan ere, etxeko alabak haren erabateko estuasunari beren miseriazko babeslekuaren atea zabaldu zion familia erregezalearengandik Gaspar Ruiz, nekazari eta nekazarien semeak jaso zuen sokorria. Haren delibramendu goibelak gaina hartu zion aitaren eromenari eta amaren durduza ikaratiari.

–Nork zauritu zaitu? –galdetu zion atalasean zegoen gizon arrotzari.

–Soldaduek, señora –erantzun zion Gaspar Ruizek ahots indarge batez.

–Abertzaleek?

–Bai.

–Zergatik?

–Desertore –erantzun zuen hatsik gabe, neskaren begi beltzen begiradapean hormaren kontra bermaturik–. Hiltzat utzi naute bertan.

Neskak, etxe barrutik, baratze sarri bateko belar garaien artean ezkutatuta zegoen lasto-buztin eta lezkazko etxola batera eraman zuen. Arta-lastozko pilatxo baten gainean etzan zen, akiturik, eta hasperen sakon bat egin zuen.

–Hona ez zaizu inor bila etorriko –esan zion neskak, begirada mutilarenganantz beheratuz–. Gurera inor ez da etortzen. Gu ere hiltzat utzita gauzkate, hemen.

Urduri mugitzen zen lasto pila zikinaren gainean, eta lepoko minak eldarniotan intzirika eginarazten zion.

–Egunen batean erakutsiko diot Estebani bizirik nagoela oraindik –esaten zuen murmurika.

Isil-isilik onartzen zuen neskaren laguntza eta oinaze-egun asko joan ziren. Neska etxolan agertzen zenean, lasaitu egiten zen, eta ohatzera bisitan etortzen zitzaizkion sukar-ametsetako aingeruen bisitekin nahasten zituen askotan; zeren Gaspar Ruiz ikasia baitzen bere erlijioa misterioei zegokienez, eta bazekien irakurtzen eta idazten ere zertxobait, bere herriko apaizak irakatsita. Irrikatan egoten zen neska noiz azalduko, eta atsekabe urragarri batez ikusten zuen bere etxola ilunetik irten eta eguzkiaren argi distiratsutan desagertzen. Ahulezia hartan zetzalarik, begiak itxi hutsarekin, haren aurpegia zehaztasun nabarmen batez gogora zezakeela ohartu zen. Eta gaitasun aurkitu berri horrek xarmatu zizkion bere bakardadezko osaketa-orduak. Geroago, indartzen hasi zenean, ilunabarrean etxolatik etxeraino herrestatu eta lorategirako ateko zapalda-harran esertzen zen.

Geletako batean aita, eroturik, aurrera eta atzera ibiltzen zen, aldiro bere baitarako bat-bateko barrealdi laburrak eginez. Sarreran, ama, aulki batean eseririk, hasperen eta

intziri aritzen zen. Alaba, zapi piltzartu latz batez jantzirik, aurpegi zurbil, zargaldua mantelina lakar baten azpian erdi ezkutaturik, ate-markoaren kontra bermaturik egoten zen. Gaspar Ruizek, ukalondoak belaunetan eta burua eskuen artean zuela, ahots beheran hitz egiten zuen emakume biek.

Beren behartasuneko miseria partekatuak iseka mingotsa bihurtuko zukeen beren arteko desberdintasun sozialak gehiegi nabarmendu nahia. Gaspar Ruizek garbi ulertzen zuen hori, bere xalotasuna gorabehera. Erregezaleen artean egindako kartzelaldiak aukera ematen zion haiei beren ezagunen berri emateko. Haien itxura deskribatzen zien; eta berriro preso hartu zuteneko gudua kontatzen zienean, beren kausaren zoritxarra eta beren ezkutuko itxaropenen porrota deitoratzen zuten bi emakumeek.

Berari bost axola zion. Baina berebiziko nahitasuna zion neska gazteari. Haren onespeneren duina izateko gogoz, bere indarraz harrotzen zen pixka bat. Ez zuen beste zerez harroturik. Gaitasun horrexegatik bere kideek errespetu handiz tratatzen omen zuten, sarjentua balitz bezalaxe, bai kanpamenduan bai guduan.

–Nahi adina bilduko nituzkeen beti niri jarraitzeko, señorita. Ofizial izendatu beharko ninduketen, irakurtzen eta idazten badakit-eta.

Atzean, andre isilak aihenezko intziri bat egiten zuen aldian behin; aita arretagabeak marmarka egiten zuen gelan batera eta bestera; eta Gaspar Ruizek begiak jaso eta jende haren alabarengan pausatzen zituen noizean behin.

Ikusminez begiratzen zion, bizirik zegoelako, eta baita arrisku edo estuasun egoeretan babesa eskatzen zaien santuen irudi bizigabe eta ahaltsuei begiratu ohi zien familiartasun eta izuaz ere. Bere estuasuna zinez handia zen.

Ezin zen betirako geratu baratze batean ezkutaturik. Oso ongi zekien, orobat, edozein norabidetan egun erdiko bidaia egin baino lehen landa-lurretan zoko guztiak miatzen ari ziren zaldizko patruiletakoren batek harrapatu eta Peru askatzeko izendatutako gudaroste abertzalea kontzentratuta zegoen eremuetakoren batera eramango zutela. Azkenean Gaspar Ruiz –erregezaleetara alde egindako desertorea– zela ezagutuko zuten eta oraingo honetan benetan fusilatuko zuten, zalantzarik gabe. Ez zirudien, beraz, munduan Gaspar Ruizentzat inon lekurik zegoenik. Eta gogoeta horrekin, haren arima xaloak erabat galtzen zuen adorea eta gaua bezain erresumin beltz bat nagusitzen zitzaion.

Behartuta egin zuten soldadu. Inoiz ez zuen soldadu izateko asmorik izan. Soldadu zintzoa izan zen, seme zintzoa izan zen bezala, bere esanekotasunagatik eta bere indarragatik. Baina orain ez bata ez besteak ez zion ezertarako balio. Gurasoengandik bereizi egin zuten, eta ezin zuen soldadu izaten jarraitu, ez soldadu ona behintzat. Inork ez zizkiokeen azalpenak entzungo. Hura bidegabekeria! Hura bidegabekeria!

Eta saminezko marmario batean, hogeigarrenez errepikatu zuen lehen eta bigarren

atxiloketen historia.

–Bai, señorita –esaten zuen hasperen sakon bat eginez, begiak ate-markoan pausatuta zegoen neska isilarengana jasota– bidegabekeriak ezertarako ez dela utzi dit, jende guztiari bezala, bularreko arnasa gaixo hau. Eta berdin dit nork kentzen didan.

Arrats batean, bere arima zaurituaren arrangura isuri zuelarik, neskak amore eman zion esanez, gizasemea izatera, ez zukeela alfertzat joko noizbait mendekua hartzeko aukera eskain diezaiokeen bizitza.

Bere buruari ari zitzaiola zirudien. Ahots beheran ari zen. Eta Gasparrek atsegin berezi batez, ametsetan bailitzan, edan zuen bularra ardo oparo batek bezala berotzen zion hots ezti hura.

–Egia da, señorita –esan zuen begiak geldiro–geldiro neskarenetarantz jasoz–. Hor dago Esteban ere, eta jakin behar du oraindik ez nagoela hilda.

Aita erotuaren marmarioak aspaldidanik bukatuak ziren; ama negartia gela hutsetakoren batera erretiratua. Dena geldi zegoen barruan zein kanpoan, itzal ilunez beteta zegoen baratza basatia eguna balitz bezalaxe argitzen zuen ilargiaren argitan. Gaspar Ruizek bereganantz beheratzen ikusi zituen Doña Erminiaren begi beltzak.

–Hara! Sarjentua –xuxurlatu zuen erdeinuz.

–Zer! Ezpataz zauritu ninduen –ihardetsi zion, neskaren aurpegi zurbilean distira hits bat egiten zuen mespretxuak harriturik.

Neskak suntsituta utzi zuen begiradaz. Haren ulertarazteko gogo hain zen indartsua, non esan gabekoak ulertzeko gaitasuna piztu baitzion mutilari.

–Zer espero zenuen besterik niregandik? –egin zion oihu, bat-batean etsimenera bultzatu izan balute bezala–. Egin dezaket ezer gehiago? Jeneral bat al naiz, bada, eta gudarostea al dut nire ondoren, azkenean zeuk ere mespretxua didazun zoritxarreko bekatari honek.

–Señores –kontatzen zien jeneralak gonbidatuei– nire gogoetak maitasunari zegozkionak baziren eta liluratuta banindukaten ere, etxe hari itxura txarra hartzen nion beti, ilargiaren argitan batez ere, kontraleiho itxiek eta utzikeria bakartiak hondamen itxura ematen baitzioten. Hala ere, erreka ondoko lasterbidea erabiltzen jarraitu nuen, laburragoa zen-eta. Erregezale eroak lehertu beharrean egiten zidan garrasi eta barre arratsero; baina handik aldi batera, nire ezaxolak nekatu izan balu bezala, atarian agertzeari utzi zion. Uzteko nola konbentzitu zuten, ez dakit. Nolanahi ere, Gaspar Ruiz etxean zela, ez zegoen inolako eragozpenik hura bertan behartuta edukitzeko. Beren asmoetan edukiko zuten ni proboka nintzakeen guztia saihestea. Hala iruditzen zait behintzat.

«Txileko begi pare distiratsuenaz nuen apeta gorabehera, horrek ez zidan eragotzi handik astebete ingurura, agurea falta zela erreparatzea. Egun batzuk igaro ziren. Pentsatzen hasi nintzen bazitekeela Erregezale haiek beste norabait joan izana. Baina gau batez, hirirantz presaka nindoala, norbait ikusi nuen berriro atarian. Ez zen eroa; neska zen. Zutik zegoen zurezko habe baten kontra bermatuta, jaso, aurpegia zuri, begi handiak urritasunak eta tristurak sakondurik. Finko begiratu nion, eta hark, bere aldetik, jakin-nahizko begirada bitxi batez erantzun zion nire begiradari. Eta orduan, etxe paretik igarotzean burua biratu nuelarik, bere adore guztia bilduz, zirudienez, atzera itzultzeko keinua egin zidan.

«Obeditu egin nion pentsatu ere egin gabe, señores; halakoxe harridura bainuen. Eta are harridura handiagoa, esateko zuena entzun nuenean. Lehenik eta behin eskerrak eman zizkidan bere aitaren txorakerienganako izan nuen bihotz-zabaltasunagatik; lotsa sentitu nuen. Nik erdeinua adierazi nahi izaten bainion, ez bihotz-zabaltasuna! Hitz haietako bakoitzak ezpainak erre behar zizkion, baina unetxo batez ere ez zen aldendu nahi gabe ere errespetua eragin zidan halako duintasun samur eta malenkoniatsu batetik. Emakumeen mailara ez gara iristen, señores. Baina bere historia kontatzen hasi zenean, kosta egiten zitzaidan belarriek entzuten zutena sinestea ere. Probidentziak bizirik zaindu zuen, nonbait, bidegabeki kondenatutako soldadu bat, eta orain nire caballero ohoreaz eta nire errukiaz fidatzen zen bere sufrikarioetarako.

«–Bidegabeki kondenatua –adierazi nuen hotz–. Horixe uste dut nik ere; eta zuk zure kausaren etsai bat eduki duzu etxean.

«–Jainkoaren izenean gure atean babes eske zetorren kristau gaixo bat zen, señor –erantzun zidan besterik gabe.

«Neska miresten hasi nintzen.

«–Non dago orain? –galdetu nion hotz.

«Baina ez zidan erantzun. Maltzurkeriarik handienaz eta ia deabruzko fintasun batez, guardia-gelako presoek bizitzak salbatzeko ahaleginean izan nuen porrota gogoratu zidan, nire harrotasuna mindu gabe hala ere. Historia osoa zekien, jakina. Gaspar Ruizek –esan zidan– San Martin jeneralaren beraren ibil-baimen bat eskuratzeko erregutzen zidan. Garrantzi handiko berri bat zuen Buruzagiari eramateko.

«Por Dios, Señores, oso-osorik irentsi arazi, eta gizagaixo haren bozeramailea baizik ez zela sinistarazi zidan. Bidegabekeria hura ulertu ezinik, babesak eman zion erregezale familiak erakutsitako eskuzabaltasuna adinakoa espero omen zuen nire aldetik.

«A! ezin hobeto eta ezin jatorrago esana ni bezalako mutil gazte bati. Handitzat hartu nuen. Baina, ai!, gupidagabea baizik ez zen.

«Azkenean eginbehar harengatik pozez alde egin nuen handik, Gaspar Ruiz ikusteko ere eskatu gabe, nahiz eta ia seguru egon etxe hartan zegoela.

«Baina hausnarketa sosegatuxeago batean, neuk bakarrik gaindi nitzakeela askorik fidatzen ez nintzen zenbait oztopo hasi nintzen ikusten. Ez zen batere gauza erraza buruzagi nagusiarengana horrelako historia batekin joatea. Beldur nintzen huts egingo ez ote nuen. Azkenean nahiago izan nuen kontua nire dibisioko jeneralari, Robles jeneralari eraman, nire familiaren adiskidea baitzen eta bere landa-laguntzaile izendatu berria baininduen.

«Bat-batean libratu ninduen eginkizun horretatik, inolako zeremoniarik gabe.

«–Etxean! Etxean, noski –esan zuen erdeinuz–. Ezpata eskuan hartuta sartu beharko zenukeen, eta errenditzeko agindu, neska erregezale horrekin atarian berrikerian jardun ordez. Aspaldi ehizatua behar genukeen jendaila hori. Nork jakin zenbat espioi ez ote duten ostatatu gure eremuen erdi-erdian? Jeneral buruzagiaren igaro-baimena? Ausarta da, gero, gizona! Ja, ja! Gaur gauean bertan atxilotuko dugu, eta igaro-baimenik gabe esan beharko digu esateko daukan hain gauza garrantzitsu hori. Ja, ja, ja!

«Robles jenerala, goian bego, gizon mozkote, lodia zen; begi biribil, finkoak zituen, eta alaitasun anker bat. Nire larritasuna ikusirik, gehitu zuen:

«–Tira, chico, tira. Hitz ematen dizut bizirik utziko dugula aurre egiten ez badigu. Eta ez digu egingo, seguru asko. Ez dugu soldadu on bat akabatuko, hari laguntzeko modurik badago. Zaude seguru! Badut gogoa zure indartsu hori ikusteko. Nor eta jeneral bat ikusi nahi duela pikaro halakoak; ederki, izango du jenerala hitz egiteko. Ja, ja! Neu joango naiz atxilotzera, eta zu nirekin etorriko zara, jakina.

«Eta halaxe egin zen gau hartan bertan. Ilunabarrean, isilpean inguratu zituzten etxea eta baratzea. Geroago jeneralak eta biok hirian geunden dantzaldi bat utzi eta lauhazka lasai batean joan ginen. Etxetik ez urruti gelditu ginen. Zaldizko laguntzaile batek heldu zien gure zaldiei. Txistu sor batez abisatu genien trokan zehar zelatan zeuden gure gizonei, eta zaratarik egin gabe abiatu ginen atarira. Etxe langatuak hutsik zegoela zirudien ilargiaren argitan.

«Jeneralak atea jo zuen. Handik une batera nor zen galdetu zuen emakume-ahots batek. Buruzagiak ukalondo-kolpe gogor bat eman zidan. Arnasarik gabe geratu nintzen.

«–Santierra tenientea –erantzun nuen totalka, itota banengo bezala–. Zabaldue atea.

«Geldiro zabaldue zen. Neska, eskuan kandela mehe bat zuela, nirekin beste gizon bat ikustean, guregandik geldiro atzeratzen hasi zen, argia eskuaz babestuz. Haren aurpegi zurbilak mamu batena zirudien. Robles jeneralaren atzetik nindoan. Neskatxak niregan finko zituen begiak. Ezintasunezko keinu bat egin nion nire buruzagiaren bizkarraren atzetik, aldi berean neure aurpegian espresio lasaigarri bat jartzen ahaleginduz. Hirurotako inork ez zuen hitz bat esan.

«Zorua eta hormak biluziak zituen gela baten geunden. Mahai landugabe bat eta aulki pare bat, ez zegoen besterik. Ile urdina askaturik zuen emakume zahar batek eskuak bihurritu zituen gu agertu ginenean. Algara ozen, bitxi eta arraro baten burrunba entzun zen etxe huts osoan. Eta atsoa gure aurretik igarotzen saiatu zen.

«–Gela honetatik ez dadila inor irten –esan zidan Robles jeneralak.

«Ateari bultza egin nion, kisketaren hotsa entzun nuen eta barrea motelago iritsi zitzaigun belarrietara.

«Gelan beste hitz bat esan baino lehen, harrituta geratu nintzen trumoi urrun baten hotsa entzunda.

«Zeruan hodei baten aztarrenik ere ez zegoen ilargi argi eta ederreko gau baten inpresio biziarekin sartua nintzen etxean. Ezin nien sinistu nire belarriei. Oso gazterik ikasketak egitera atzerrira bidali nindutelarik, ez nuen ezagutzen nire jaioterriko fenomeno naturalik beldurgarriena. Baina, harridura handiz, izumenezko begirada ikusi nuen buruzagiaren begietan. Bat-batean, zorabioa sentitu nuen. Jenerala estropezuka jausi zitzaidan gainera, neska gelaren erdian zabuka ari zela iruditu zitzaidan, kandela eskuetatik erori eta argia itzali egin zitzaion; atsoaren Misericordia! oihuak belarriak zulatu zizkidan. Iluntasun beltzean hormetako igeltsua lurrera erortzen entzun nuen. Eskerrak sabairik ez zegoen. Ate-kisketari helduta, buru gainean puskatzen ziren teilen karraska-hotsa bukatzen entzun nuen. Izumena igaroa zen.

«–Kanpora! Atea! Ospa hemendik, Santierra –egin zuen oihu jeneralak.

«Badakizue, señores, gure herrialdean ausartenak ere ez direla lotsatzen lurrikarekin gizon baten zentzu guztietan eragiten duten izuaz. Sekula ez zara ohitzen horretara.

«Esperientzia errepikatzeak areago handitzen du egiten izenik gabeko izu horren neurria.

«Nire lehenengo lurrikara nuen, eta neu nintzen denetan sosegatuen nengoena. Kanpoko burrunba, ataria bere zurezko zutoinekin eta teilazko teilatuarekin erori zelako izan zela ohartu nintzen. Bazitekeen hurrengo astinduak etxea erabat suntsitzea. Trumoi baten

antzeko hots hura gerturatzen ari zen berriro. Jenerala zalaparta batean zebilen gelan hara eta hona, atearen bila nonbait. Horman gora igo nahian ari balitz bezalako zarata bat egiten zuen, eta argi eta garbi entzun nion hainbat santuren izenei laguntza eske.

«–Kanpora, kanpora, Santierra! –egiten zuen oihu.

«Neskaren ahotsa izan zen entzun ez nuen bakarra.

«–Jenerala –egin nion oihu–, ezin dut atea mugitu. Giltzatuta gaude, nonbait.

«Ez zitzaidan haren ahotsa iruditu hark bota zuen amorru- eta etsipen-garrasia. Señores, gizon askorekin izan dut tratua nire herrian, lurrikarek gehien zigortzen dituzten probintzietan batez ere, eta ez dute ez jaten, ez lo egiten, ez otoitz egiten, ez kartetan jokatzeko esertzen ateak itxita. Arriskua ez dago astirik ez izatean, hormen mugimenduak ateak zabaltzea eragoztean baizik. Horixe gertatu zitzaigun guri. Tranpan harrapatuta geunden, eta ezin zigun inork lagundu. Nire herrian ez dago lurra dardarka denean etxe baten barrura joango den gizonik. Inoiz ez da halakorik izan, bat salbu: Gaspar Ruiz.

«Ezkutatuta zegoen ez dakit zein zokotatik atera eta suntsitutako atariko zur guztien gainetik gora igo zen. Dagoeneko bazetorren suntsipenaren lurpeko urruma izugarriaren gainetik ahots ozen bat entzun nuen, erraldoi baten birikez oihu batean “Erminia!” deika. Lurrikara bat kategorien berdintzaile handia izan ohi da. Nire bipiltasun guztia bildu behar izan nuen egoera izugarri hari aurre egiteko.

«–Hemen dago –oihu egin nion erantzunez.

«Piztia basati amorratu baten urrumak erantzun zidan; burua biraka zebilkidan, bihotza gelditu egin zitzaidan eta larriminaren izerdia euria bezala zeridan kopetatik.

«Gasparrek bazuen atariko zutoin astunetako bat jasotzeko indarra. Hura lantza baten gisan besapean harturik, bi eskuez heldu, ahari-buru baten indarrez ekin zion balantzaka ari zen etxeari, atea lehertu zuen eta buruz aurrera oldartu zen barrura, gure gorputz erorien gainera. Jenerala eta biok bizkor jaiki eta elkarrekin ihes egin genuen kanpora, geure buruak bidean salbu ikusi arte ingurura begiratu gabe. Orduan, elkarren kontra estuturik, etxea bat-batean hondakin pilo bat bihurtzen zela ikusi genuen, besoetan emakume bat zekarrela balantzaka guregana zetorren gizon baten atzean. Haren ile beltz luzea bere salbatzailearen oinetaraino iristen zen ia. Gizonak begiramendu handiz emakumea dardarka ari zen lurrean utzi zuen eta ilargiak haren begi itxiak argitu zituen.

«Señores, kostata igo ginen zaldietara. Gure zaldiak, eroen moduan zutitzen ziren aurreko hankak jasoz, alde guztietatik lasterka etorritako soldaduek eutsirik. Orduan inori ez zitzaion bururatu Gaspar Ruiz atzitzerik. Gizonen eta abereen begietan beldur basatiaren distira ikusten zen. Jenerala Gaspar Ruizengana hurbildu zen; hura geldirik zegoen, estatua baten gisan, neskaren ondoan. Eta adiskidetasunezko kolpe bat eman zion bizkarrean, baina hark ez zituen begiak neskaren aurpegitik kendu.

«–Bai neska ederra! –oihu egin zion jeneralak belarrira–. Eta zu mundu honetako gizonik ausartena. Bizia salbatu didazu. Robles jenerala naiz. Etorri bihar nire kuartelera, Jainkoak beste egun bat ikusteko aukera ematen badigu.

«Ruizek ez zuen ikararik ere egin; mutua, sentimendurik gabea, bizirik gabea bailitzan.

«Lasterka joan ginen hirira; gure ahaidez eta lagunez beteta zegoen, eta pentsatzera ere ez ginen ausartzen zer zori izan ote zuten. Soldaduak lasterka zihoazen gure zaldien ondoan. Dena ahaztu zen herrialde osoak pairatutako hondamendi izugarri hartan».

Gaspar Ruiz neskak begiak nola zabaltzen zituen begira zegoen. Betazalak jasotzen ikusteak trantzetik atera zuen. Biak bakarrik zeuden; etxerik gabe geratutakoen izu- eta larritasun-garrasiz betetzen ziren kostalde urrun eta baztergabe hartako lur zelaiak, eta oinazezko hasperen baten moduan iristen ziren haien bakardaderaino.

Neska geldiro zutitu zen, alde guztietara beldur-begiradak botaz.

–Zer gertatzen da? –galdetu zion ahots apalez, Gasparri aurpegira begiratuz–. Non nago?

Gasparrek triste mugitu zuen burua, hitzik esan gabe.

–Nor zara zu?

Orduan neskaren aurrean geldiro belaunikatu eta oihal lakarrezko gona beltz, sendoaren ertza ukitu zion.

–Zure esklaboa –erantzun zion.

Erminiak bere etxea izandako hondakin pila ikusi zuen, hautsezko hodei batean lauso.

–A! –egin zuen, eskua bekokiaren kontra estutuz.

–Nik atera zaitut hortik –xuxurlatu zion Gasparrek haren oinetan.

–Eta besteak? –galdetu zuen neskak zotin handi batez.

Gaspar zutitu eta, neska besoetan hartuta, lur-jauzi batek ia estalita zeuzkan hondakinen ondora eraman zuen emeki-emeki.

–Etorri eta entzun.

Ilargi garbiak hilobi bat zen harri, habe eta teila pila haren gainera igotzen ikusi zituen. Belarriak zirrikituen kontra estutzen zituzten, ea intziriren bat, oinazezko aieneren bat entzuten zuten.

Azkenik, Gasparrek esan zuen:

–Kolpetik hil dira. Bakarrik zaude.

Erminia habe hautsi baten gainean eseri zen, aurpegia beso batez estalirik. Gaspar zain

geratu zen; gero, ezpainak neskaren belarrira hurbilduz, xuxurlatu zion:

–Goazen hemendik.

–Ez horixe; ez naiz hemendik mugituko –egin zuen oihu, eskuak buru gainera jasorik.

Gaspar neskaren gainera makurtu zen eta haren beso jasoak sorbaldetatik behera jaitsi ziren. Neska jaso zuen, une batez zutik egon zen, eta ibiltzen hasi zen, zuzen aurrera begiraturaz.

–Zer ari zara egiten? –galdetu zuen ahots apalez.

–Etsaiengandik ihesi noa –erantzun zion Gasparrek, bere zama arinari begiratu gabe.

–Nirekin? –egin zuen hasperen egin zuen neskak, ahul.

–Zu gabe inola ere ez –erantzun zion–. Zu zara nire indarra.

Eta bere kontra estutu zuen. Gasparren aurpegia serioa zen, eta pausoak bizkorrak. Etxe suntsituen hondarretatik lehertzen ziren garrek su gorrixkez ziprizzintzen zuten zabaldua; eta urruneko aieneen hotsek, “Misericordia! Misericordia!” garrasiek marmario erdiragarri bat eratzen zioten belarrarian. Arranditsu eta bere baitaraturik zihoan, gauza sakratu, hauskor eta baliotsuren bat balerama bezala.

Lurrak aldian-aldian dardarka egiten zuen haren oinen azpian».

Zehaztasun mekanikozko mugimenduak eginez eta bere baitan bilduta balego bezala zigarro lodi, luze bat piztu zuen Santierra jeneralak.

«Ordu mordoxka bat joan zen trokara berriro soldadu talde bat bidali ahal izan genienerako –esan zien gonbidatuei–. Hiriaren heren bat lur jota aurkitu genuen, gainerakoa mugituta; eta biztanleak, aberats zein behartsu, hondamen unibertsal hark nahasmendu egoera berera mugatuta. Batzuen itxurazko alaitasunak besteen etsipenarekin kontrastatzen zuen. Nahaste orokor hartan, ez Jainkoari ez gizonei beldurrik ez zieten zenbait lapur burugabe arriskutsu bilakatu ziren beren etxe erorietatik baliozko zenbait gauza salbatzeko moldatu zirenentzat. Lurraren ikararik txikienarekin, “Misericordia! Misericordia!” beste inork baino ozenago oihukatuz eta esku batez bularrean kolpeak joz, beste eskuaz biktima gaixoei lapurtzen zieten gizagaizto horiek, hilketa egiteko ere atzeratu gabe.

«Robles Jeneralaren dibisioa hiriko auzo suntsituak munstro anker haien lapurretetatik babesten lanpetuta zegoen. Militar-laguntzaile lanetan nembilela, hurrengo goiza arte ezin izan nuen neure familia salbu zela ziurtatu.

«Ama eta arrebak onik eta bizirik atera ziren arratsaldean lehenago utzi nituen dantza-aretotik. Oraintxe bertan ikusten ari banintz bezalaxe gogoratzen ditut bi emakume gazte eder haiek –Goian beude–, gure etxe suntsituaren lorategian, zurbil baina gogotsu, gure auzoko biztanle gaixo batzuei laguntzen, beren dantzarako jantzi zikinduekin eta ilea horma erorietako hautsak zikinduta. Amari dagokionez, arima estoikoa zuen bere gorputz hauskorrean. Xal garesti batean bildurik, landa-estiloko eserleku batean zegoen etzanda, gau hartan bertan betirako agortu zen iturri baten aska monumentalaren ondoan.

«Ozta-ozta izan nuen haiek denak pozez zorutzen besarkatzeko astia, zeren nire nagusiak, ondora etorrita, trokara bidali baininduen soldadu talde batekin, nire indartsua, hark deitzen zion bezala, eta neska zurbil hura ekartzeko.

«Baina han ez zegoen inor ekarri ahal izateko. Etxearen hondakinak luizi batek estalita zeuden; eta lur-tontor bat zirudien, han eta hemen egur batzuk agerian ikusten zirela; ez zegoen besterik.

«Horrela bukatu ziren erregezale bikote zahar haren nahigabeak. Hilobi erraldoi kotsakratu gabe batek bizirik irentsi zituen, herri batek libre izateko zuen gogoaren kontrako beren zoritzarreko teman. Eta beren alaba desagertuta zegoen.

«Neska Gaspar Ruizek eraman zuela garbi neukan. Baina horrelako egoera aurreikusitako gabe zegoenez, ez nuen haien atzetik joateko agindurik. Ez horretarako gogorik ere, noski. Ez

nintzen fidatzen nire esku hartzeaz ere. Sekula ez nuen ezer lortu esku hartze horietan, eta fidatzekoak ere ez ziruditen. Alde egin zuen. Oso ondo, alde egitea zuen. Eta neska erregezalea eraman zuen! Hobeto. Vaya con Dios! Ez zen garaia zuzen edo bidegabeki hilik egon behar zuen desertore batez eta jaio ez balitz hobe zukeen neska batez kezkatzen hasteko.

«Nire jendearekin hirira itzuli nintzen, beraz.

«Handik egun batzuetara, ordena berrezarrita, familia nagusi guztiak, neurea ere barne, Santiagora aldatu ziren. Etxe eder bat genuen han. Garai hartantxe, Roblesen dibisioa hiriburutik gertuko kuartel berri batera eraman zuten. Aldaketa hori oso ongi egokitzen zen nire maitasun- eta familia-sentimenduetarako.

«Gau batean, nahikoa berandu, buruzagiak deitu zidan. Haren bulegoan topatu nuen Robles jenerala, bere gogara, uniformeak kenduta, brandi hutsa uretarako baso batetik edaten; eltxoen zitzadak eragindako loezinaren aurkako erremedioa, esan ohi zuen. Soldadu ona zen, eta hark irakatsi zizkidan gerraren artea eta praktika.

«Dudarik ez dut Jainkoak barkatuko ziola, zeren, haserrekorra bazen ere, abertzaletasunak bultzatzen baitzituen beti haren arrazoiak. Eltxoen kontrako sareak erabiltzeari dagokionez, maritxuen gauza, lotsagarria eta militar batentzat duintasunik gabea iruditzen zitzaion.

«Lehen begiratuan ohartu nintzen haren aurpegiak, lehendik ere oso gorria, oso umore ona adierazten zuela.

«—Ai, señor teniente —egin zuen oiho ozenki, atetik agurtu nuenean—. Aurrera! Zure indartsu hori azaldu da berriro.

«Gutun tolestu bat luzatu zidan; ‘Errepublikar Gudarosteen Buruzagi Gorenari’ helbidea ikusi nuen gainean idatzita.

«—Hau —jarraitu zuen Robles jeneralak bere ahots ozenaz— mutiko batek eman dio eskutik eskura, Kuartel Nagusian, zentinelak bati; hura ere bere neskalgunarengan pentsatzen ariko zen, nonbait, zeren konturatu denerako mutikoa desagertua baitzen merkatuko jendearen artean, eta orain zin egiten du ezin ezagutuko zukeela, bere bizia salbatzeko ere.

«Nire buruzagiak esan zidan soldaduak guardiako sarjentuari eman ziola gutuna, eta azkenean jeneral nagusiarengana iritsi zela. Bere Gorentasunak bere kabuz ezagutu nahi izan zuen gutunak zioena. Ondoren, Robles jenerala gaiaren jakinean jarri zuen sekretuan.

«Gutuna ez dut hitzez hitz gogoratzen, señores. Baina Gaspar Ruizen sinadura ikusi nuen. Mutil ausarta, hura. Hondamendiaren erdi-erdian arima berri bat bereganatu zuen. Eta orain arima berri hark diktatu zizkion bere gutunaren hitzak. Gutunaren tonua oso independentea zen. Gogoan dut haren noblezasunak, duintasunak harritu ninduela. Letra

neskarena zen, zalantzarik gabe. Orain ikara eragiten dit haren faltsukeriaren norainokoak. Gaspar Ruiz egin zioten bidegabekeriaz kexarazten zuen. Aurretiko fideltasun- eta adorefrogak aipatzen zituen. Probidentziaren mirarizko esku-hartze batek hiltzetik salbaturik, bere prestutasuna berreskuratzea beste ametsik ez zuen. Hori, ordea, idatzi zuen, ezinezkoa zen izen ona galdu eta artean susmopean zegoen soldadu soil gisa. Bazuen bere fideltasunaren froga argi bat emateko modua. Eta Jeneral Buruzagi Nagusiari Monedako Plazaren erdian gauerdian elkartzea proposatuz bukatzen zuen. Suharriz eta arraspaz hiru aldiz sua piztea izango zen seinalea, hori ez baitzen nabarmenegia baina bai nahikoa bereizgarria ezagutzeko.

«San Martin, Askatzaile handiari, gizon ausart eta kementsuak gustatzen zitzaizkion. Hortaz aparte, zuzena eta errukiorra zen. Gaspar Ruizen historiaz nekien guztia kontatu nion, eta izendatutako gauean topaketara laguntzeko agindu zidan. Seinaleak agindu bezala trukatu ziren. Gauerdia zen, eta isilik eta ilun zegoen hiri osoa. Bi irudiak, kapa lodietan bildurik, Plaza zabalaren erdian elkartu ziren, eta nik, zuhurtasunak agintzen zuen distantzia batera gelditurik, ordubete baino gehiagoz entzun nuen haien solasaren zurrumurrua. Gero jeneralak hurbiltzeko seinalea egin zidan; halaxe egin nuen, eta San Martinek, adeitasun berbera izaten baitzuen nobleekin zein jende xehearekin, Gaspar Ruizi gauerako ostatua kuartel nagusian nola eskaintzen zion entzun nuen. Baina soldaduak ez zuen nahi izan, esanez zerbait egin arte halako ohorerik ez zuela merezi.

«—Ezin duzu desertore bat ostatuz hartu, jaun agurgarria —gehitu zuen, barre arin bat eginez, eta, atzera eginez, gaueko ilunpetan hondoratu zen poliki-poliki.

«Jeneral Nagusiak, topaketatik itzultzean, esan zidan:

«—Gure adiskide Ruizek bazuen norbait lagun. Une batean bi irudi ikusi ditut. Lagun isila zen.

«Nik ere ikusia nuen beste irudi bat Gaspar Ruizen isla iheskorren ondoan. Gizon txikitxo baten itxura zuen, pontxo batez eta kapela handi batez estalita. Eta ergel baten moduan hasi nintzen pentsatzen ea norekin ausartu ote zen halako konfiantza izateko. Pentsa nezakeen zorigaiztoko neska hura baino ezin izan zitekeela, horra!

«Non eduki zuen ezkutatuta, ez dakit. Gasparrek bazuen —hori geroago jakin genuen— osaba bat, amaren anaia, Santiagon dendatxo bat zuena. Agian han aurkitu zituen neskak sabaia eta janaria. Zer ere aurkitu zuen han, ez zen aski haren harrotasuna sumintzeko eta haren haserrea eta gorrotoa pizteko. Gauza segurua da ez ziola lagundu Gasparri hark egiteko prestatu zuen lehenengo balentria burutzen. Linares izeneko Hegoaldeko hiri batean espainiar agintariak ezkutuan eraikitako gerrako material-biltegi bat suntsitzea zen, hain zuzen, helburua. Gaspar Ruizi patruila txiki baten kargua baino ez zioten eman, baina San Martin jeneralaren konfiantza benetan merezi zuela frogatu zuen. Urtaroa ez zen egokia. Gainezka eginda zeuden ibaiak igerian igaro behar izan zituzten. Bazirudien, hala ere, gau eta egun galapan eginez joan zirela, beren sarraldiaren berriei aurrea hartuz, etsaien

lurraldeetan ehun milia eginik zuzen-zuzen hirirantz jo, egunsentian ezpata eskuan zutela hartan sartu eta hango goarniziotxoak ustekabeen harrapatzeko. Goarnizioak ihes egin zuen erresistentziarik batere gabe, ofizial gehienak Gaspar Ruizen eskuetan utzirik.

«Bolboraren leherketak eman zion buru erasotzaileek astirik galdu gabe su emandako biltegien suteari. Sei ordu baino gutxiagoan abiapuntura itzultzen ari ziren, lehengo abiadura ero berean, gizon bat bera ere galdu gabe. Jende ona bazen ere, halako egitandi bat ez da egiten are buruzagi hobe bat izan ezean.

«Kuartel nagusian bazkaltzen ari ginen Gaspar Ruizek berak bere garaipenaren berria ekarri zigunean. Eta kolpe izugarria zen erregezaleen tropentzat. Froga bezala, goarnizioaren bandera aurkeztu zigun. Bere pontxo azpitik atera eta mahai gainean zabaldu zuen. Gizon hura itxuraldatuta zegoen; bazuen zerbait pozgarria eta mehatxagarria aurpegian. San Martin jeneralaren aulkiaren atzean geratu zen zutik, gu guztioi harrotasunez begira. Buruan kapela urdin biribil bat zeraman, zilarrezko xingola batekin, eta garondo errean ebakiondo luze zuri bat ikusten zitzaion.

«Norbaitek galdetu zion ea zer egin zuen harrapatutako espainiar ofizialekin.

«Soinak altxatu zituen, erdeinuz.

«—A zer galdera! Gerra partisano batean ez zara preso kargatzen. Joaten utzi nien, eta hemen daude haien ezpata-lokarriak.

«Haietako mordoxka bat bota zuen mahaira, bandera gainera. Orduan Robles jeneralak, laguntzaile ninduenak, bere ahots ozen, lodiaz esan zuen:

«—Hori egin duzu? Orduan, nire adiskide kementsua, oraindik ez dakizu ongi nola gidatu behar den gure hau bezalako gerra bat. Hau egin behar zenuen...

«Eta esku-ertza zintzur gainetik pasatu zuen.

«—Ea, bada, señores! Egia zen, bai, bi alderdietan ere, borroka, izatez hain heroikoa dena, krudelkeriak orbanduta zegoela. Robles jeneralaren hitz haiek eragin zituzten marmarrak ez ziren den-denak zentzu berekoak. San Martin eskuzabal eta kementsuak, berriz, gizalegezko jokabidea goretsi zuen eta Ruizi bere eskuinaldean zegoen leku bat seinalatu zion. Gero, bere kopa beterik jaso eta topa egin zuen:

«—Caballeros eta arma-kideak, edan dezagun Gaspar Ruiz kapitainaren osasunera —eta kopak hustu genituenean Buruzagi Nagusiak jarraitu zuen:— Gure hegoaldeko muga zaintzeko ardura emango diot, gu Peruko anaiak askatzera urruntzen garen bitartean. Etsaiak bere bihotz-bihotzean halako kolpea ematea eragotzi ezin izan dionak ongi jakingo du gure eginkizun sakratua betetzera goazelarik atzean uzten ditugun herritar baketsuak defenditzen. —Eta besarkada bat eman zion bere ondoan isilik zegoen Gaspar Ruizi.

«Geroago, mahaitik altxatu ginenean, zorionak ematera joan nintzaion gudarosteko ofizial berriari.

«—Eta, Ruiz kapitaina —gehitu nion— esango al diozu zure leialtasunean beti sinetsi izan duen gizonari zer gertatu zen Doña Erminiarekin gau hartan?

«Galdera adiskidetsu horren aurrean, aurpegia aldatu zitzaion. Bere bekainen azpitik guaso baten, nekazari baten begirada astun, moldakaitzaz begiratu zidan.

«—Señor teniente —erantzun zidan ahots ilunez, hondoa jota balego bezala—, ez galdetu señoiritari buruz; nahiago dut hartan ez pentsatu zuen artean nagoen bitartean.

«Bekozko ilunez begiratu zuen inguru osora, tabakoa erretzen eta hizketan ari ziren ofizialez betetako gelan. Ez nintzen gehiago saiatu, jakina.

«Horiek izan ziren, señores, luzaroan, oso luzaro entzun behar nizkion azken hitzak. Hurrengo egunean bertan, Perurako espedizio neketsurako ontziratu ginen, eta gure guduen erdian baizik ez genuen entzuten Gaspar Ruizen ekintzen berri. Gure hegoaldeko probintziako zaindari militar izendatu zuten. Partida bat sortu zuen. Baina menderatutako etsaiekiko zuen barkaberatasuna ez zitzaion gustatzen Gobernari Zibilari, gizon protokolozalea, kezkatua eta susmotsua baitzen. Gaspar Ruizen kontrako txostenak igorri zituen Gobernu Nagusira; haietako batean zioen Gaspar Ruiz emakume erregezale batekin ezkondu zela publikoki eta ponperia handiz. Hain izaera desberdinetako bi gizon haien artean zalantzarik ez zegoen liskarrak sortuko zirela. Azkenean alferra omen zelako kexatzen hasi zen gobernadore zibila, traidorea ote zen iradokitzen, hain zuzen ere ez baitzen harritzekoa izango —datzi zuen— Gaspar Ruizek zituen aurrekariak izanda. Gaspar Ruizek horren berri entzun zuen. Amorrua piztu zitzaion, eta beti ondoan zuen emakumeak oso ongi zekien nola berotu, hitz maltzurrez. Ez dakit Gobernu Gorenak egiaz hura atxilotzeko agindua eman ote zuen, Gaspar Ruiz gerora kexatu zen bezala. Baina badirudi egia dela Gobernadore Zibila bere ofizialak manipulatzeko hasi zela, eta Gaspar Ruizek maniobra horren berri jakin zuela.

«Arratsalde batean, gobernadorea bere lagunarteko solasaldian zegoela, Gaspar Ruiz, fidatzen zen sei gizonekin batera, hirian zaldiz sartu, Gobernu Etxeko atera joan eta armatuta eta kapela jantzita sartu zen aretoan. Gobernadorea, nahigabetuta, harengana aurreratu zelarik, Gaspar Ruizek gizajoari gerritik heldu, bere solaskide txundituen artetik atera eta haur bat balitz bezala bota zuen kalera, kanpoko harmailtan behera. Gasparren besarkada haserre bat nahikoa zen erraldoi baten bizitza zanpatzeko; baina, orduan, horrez gainera, Gasparren zaldunek tiroka ekin zioten beren pistolez Gobernadorearen gorputzari, eskaileraren oinetan mugitu gabe zegoen bezala».

«Justiziazko ekintza horren ondoren –horrela deitzen zion berak–, Ruizek Rio Blanco igaro, ia bere talde osoarekin, eta muino batean babestu zen, lubaki batean. Zuhurtziarik batere gabe haren kontra bidalitako tropa erregularren konpainia bat inguratu eta azkeneko gizoneraino suntsitu zuen. Beste espedizio batzuek ere, hobeto antolatua izan arren, ez zuten arrakasta handiagorik izan.

«Gudu odoltsu haietan hasi zen haren emaztea bere eskuineko aldean zaldi gainean agertzen. Garaipenek harroturik eta konfiantza emanik, Ruizek ez zuen eraso egiten bere partidaren buru zela, baizik eta, harrokeriaz beterik, gudaroste baten mugimenduak zuzentzen dituen jeneral baten moduan, atzean geratzen zen, tontor baten gorenean zaldi gainean eta mugitu gabe, aginduak emanez. Emaztea ondoan edukitzen zuen askotan, eta luzaro hartu izan zuten gizonezkoetat. Aldi hartan asko hitz egin zen gure armen porrotak egozten zitzaizkion aurpegi zurbileko buruzagi misterioitsuaz. Indiar emakumeen modura ibiltzen zen zaldiz, zangalatrau, hegal zabaleko gizon-kapela bat eta pontxo ilun bat jantzita. Geroago, oparotasun handieneko garaian, urrez brodatua izaten zen pontxo hori, eta Don Antonio de Leyva gizajoarena izandako espada erabiltzen zuen. Txiletar ofizial beterano hori, bere indar urriarekin inguratua izateko zoritxarra izan zuenez, munizio gutxiarekin gainera, Gaspar Ruizen indiar araukano aliatu eta laguntzaileen esku hil zen. Hori izan zen gerora 'Uharteko Sarraskia' izenaz gogoratuko zen zoritxarreko gertaera. Ofizial dohakabearen espada Peneleo araukaniar buruzagiak oparitu zion Erminia andreari; indiar haiek, izan ere, emakume haren itxurak eta aurpegiaren hilotz-zurbiltasunak –aire zabalean ez egoteak eragina, hain zuzen– eta borrokan izaten zuen ezaxola sosegatuak txunditurik, naturaz gaindiko izakitzat edo, gutxienez, sorgintzat zeukaten. Sineskeria horrek are gehiago handitzen zituen Gaspar Ruizek jende ezjakin haren artean zuen ospea eta autoritatea. Erabat dastatu zuen, seguru, mendekua, Don Antonio de Leyvaren espada gerrian lotu zuenean. Sekula ez zuen askatzen, bere emakume jantziak janzten ez zituenean behintzat, ez inoiz erabili nahi edo behar izan zuelako, baina gustatu egiten zitzaion espada bere izterra jotzen sentitzea, Errepublikaren desohorearen etengabeko gogorapen eta sinbolo gisa. Aseezina zen. Horrez gainera, Gaspar Ruiz ibiltzera bultzatu zuen bidean ez zegoen gelditzeko modurik. Ihes egindako gatibuek –ez ziren asko, bestalde– esan ohi zuten nola hark belarrira xuxurlatutako hitz batzuk aski izaten ziren senarraren aurpegia aldatzeko eta ezinikusia baretzen ari bazitzaion berriro pizteko. Orobat esaten zuten gudu bakoitzaren ondoren, ekintza arrakastatsu bakoitzaren ondoren, emaztearengana joaten zela Ruiz eta aurpegira begiratzen ziola. Aurpegi haren baretasun harroa ez zen inoiz eztatzen. Haren besarkadak estatua baten besarkada bezain hotza izan behar zuen, señores. Gasparrek ahaleginak egiten

zituen haren izotzezko bihotza odol berozko turrusta batez urtzeko. Garai hartan bisita egin zioten Ingalaterrako itsas armadako ofizial batzuk harrituta ohartu ziren haren maiteminarren izaera bitxi hartaz».

Entzuleen artean sortu zen harridura eta jakinmin-mugimendua ikusirik, etenaldi labur bat egin zuen Santierra Jeneralak.

«Ingalaterrako itsas armadako ofizialak, bai –errepikatu zuen–. Ruizek haiekin biltzea onartu zuen herrialdeko zenbait presoren askatasunaz tratua egiteko. Berak agintzen zuen lurraldean, itsasertzetik mendietaraino, bazen badia bat garai hartako itsasontziek Hornos Lurmuturrari bira egin ondoren egurrez eta urez hornitzeko erabiltzen zutena. Han, tripulazioa lehorrera erakarririk, Hersalia baleontziaz jabetu zen lehenik, eta gero ezustean beste bi ontziz, bata ingelesa eta bestea iparramerikarra.

«Garai hartan zurrumurrua zabaldu zen bere itsas ontzidi bat antolatzeko ametsa zerabilela. Baina ezinezkoa zen, jakina. Nolanahi ere, baleontzia bertako tripulazioaren parte batez osaturik, bere ofizial baten eta zenbait gizonen zuzendaritzapean, Chiloeke uharteko espainiar gobernariarengana bidali zuen, bere balentriei buruzko txosten batekin eta errebeldeen kontrako gerran haren laguntza eskatuz. Gobernadoreak ezin izan zuen haren alde ezer egin; baina artilleria arineko bi pieza, laudoriozko gutun bat, erregeren gudarosteko koronel izendapena eta Espainiako bandera handi bat bidali zizkion. Ikurrin hori solemnetasun handiz jaso zuten Gasparren etxean, Araukaniako lurraldearen bihotzean. Egun hartan, emazteak harrokeria gutxiagoko irribarrea egin zion, seguru, senar guasoari.

«Gure itsasaldeko ingeles eskuadroiko komandanteak kexuak bidali zizkion gure gobernuari harrapaketa horiengatik. Baina Gaspar Ruizek ez zuen gurekin tratatu nahi izan. Orduan ingeles fragata bat badian sartu zen, eta ontziko kapitaina, sendagilea eta bi teniente lehorreratu ziren, igaro-baimen batekin. Harrera ona egin zieten, eta hiru egun igaro zituzten partisoanen buruzagiaren gonbidatu gisa. Haren egoitzan halako araudi militar, barbaro bat jarraitzen zen. Mugako hirietan lapurtutako harrapakinez hornitzen zen. Ingelesak areto nagusian sartu zirenean, etzanda ikusi zuten emaztea (ez zegoen osasuntsu une hartan), eta Gaspar Ruiz sofa-oinetan eserita. Kapela lurrean zeukan, eta eskuak ezpataren giderrean.

«Lehenengo elkarrizketa hartan, behin ere ez zituen eskuak ezpataren giderretik kendu, behin salbu, gaixoari izarak konpontzeko, ukitu leun eta samurrez. Ofizialak ohartu ziren emazteak hitz egiten zuenean, Gasparrek harengan finkatzen zituela begiak, halako arreta adi batez, arnasari eutsiz, mundua bazenik ere edo bera bazenik ere ahaztuta balego bezala. Agur-oturuntzan, zeinetan emaztea bere sofan etzanik egon baitzen, Ruizek protesta haserrea adierazi zuen jasotako tratuagatik. San Martin jeneralak alde egin zuenetik, espioiz inguratuta egon zela, funtzionario zibilek kalumniatuta, ez zituztela aintzat hartzen bere

zerbitzuak, eta Txileko Gobernuak arriskuan jarri zituela bere askatasuna eta are bizi ere. Mahaitik jaiki eta madarikazioka hasi zen, gelan basapiztia bat bezala hara eta hona; eta gero emaztearen oinetan eseri zen, arnasestuka, begiak lurrean iltzaturik. Emaztea, burua burko batzuen gainean zuela zetzan, begiak ia itxita.

«—Eta orain espainiar ofizial gisa ohoratzen naute —gehitu zuen ahots sosegatuz.

«Ingeles fragatak kapitainak aukera aprobetxatu zuen jakinaren gainean jartzeko Lima erori zela eta, hitzarmen bateko erabakien arabera, espainiarrak kontinente osotik erretiratzen ari zirela.

«Gaspar Ruizek burua jaso eta, inolako zalantzarik gabe, grina bridatu batez aldarrikatu zuen, Amerika osoan espainiar soldatu bat bera geratzen ez bazen ere, azken odol tanta isuri arte jarraituko zuela berak Txileri aurka egiten. Parrastada ero hura amaitu zenean, haren emazteak esku zuri mehe bat jaso eta bere behatz puntez belaua ferekatu zion segundolipar batez.

«Ofizialen egonaldia iraun zuen gainerako guztian —oturuntza bukatu eta ordu erdi baino gehiago ez—, adeitasunez eta amultsutasunez gainezkatu zituen partida desesperatu haren buruzagi oldarkorak. Ordu arte abegitsu jokatu zuen, baina handik aurrera bazirudien ezer ez zitzaiola aski iruditzen bere bisitariak ontzira itzultzeko egin behar zuten bidaian eroso eta salbu egon zitezen.

«Ezerk ez zezakeen kontrastan handiagorik adierazi —esan zidatenez— haren lehengo bortizkeriarekin eta beti izan ohi zuen jokaera uzcurrarekin. Espero ez zuen zorion batek harrotuegi, onginahiz, amultsutasunez eta adeitasun-erakutsiz gainezka egin zuen. Anaiak balira bezala besarkatu zituen ofizialak, begietan ia malkoak zituela Urrezko diru bana oparitu zien askatutako presoek. Azkeneko momentuan, bat-batean, merkataritza-ontzien jabeei beren ondasun pertsonal guztiak itzuli baino gutxiagorik ezin egin zezakeela adierazi zuen. Ustekabeko eskuzabaltasun horrek taldeak alde egiteko unea zertxobait atzeratu zuen; haien lehenengo ibilaldia oso laburra izan zen.

«Ilunabarrean Gaspar Ruiz eskoltarekin agertu zen haien kanpalekura, ardo-upelez kargatutako mando bat eramanez. Bere adiskide ingelesekin azkeneko trago bat edatera joan zen —esan zuenez—, ez baitzituen sekula gehiago ikusiko. Umore onekoa eta alaia zegoen. Bere balentrien historiak kontatu zizkien, mutiko batek bezala barre egin zuen, eta, ingeles mandazain buruari gitarra hartu, bere pontxo mehe-mehea txingarren argitan zabaldu eta haren gainean hankak gurutzatuta eseririk maitasun-abesti guaso bat abestu zien ahots eztiz. Gero burua bular gainera makurtu zuen, eskuak lurrean jarri zituen; gitarra belaunetatik erori zitzaion, eta isiltasun sakon bat nagusitu zen kanpalekuan, gure hainbeste herritarri beren etxe suntsituengatik eta etendako maitasunengatik negar eginarazi zion gerrillari gupidagabearen maitasun abestia bukatu zenean.

«Inork hitz bat esan baino lehen, lurretik altxatu eta bere zaldia eskatu zuen.

«—Agur, adiskideak! —egin zien oihu— Jainkoak lagun dagizuela! Maite zaituztet. Eta esan Santiagon Gaspar Ruiz, Espainiako erregearen koronelaren eta Txileko belamika errepublikazaleen artean azken arnasa arte izango dela gerra, gerra!, gerra!, gerra!

«Gasparren eskoltak ‘gerra!, gerra!, gerra!’ oihua errepikatu eta alde egin zuen, eta

zaldien apatxen eta oihuen hotsa urruti galdu zen, mendi maldetan.

«Bi ofizial ingeles gazteak sinetsita geratu ziren Ruiz erotuta zegoela. Nola esaten duzue zuek? Buruan tantaren bat falta, ez? Baina sendagileak, eskoziar buruargia, zorrotza eta filosofia askokoa bera, oso posesio kasu bitxi bat zela esan zidan. Handik urteetara berriro topatu nuen, baina oso ongi gogoratzen zuen oraindik ere esperientzia hura. Haren ustez, emakume hark ez omen zuen Gaspar Ruiz zuzenean konbentzitzuz eramaten plan odoltsuak betetzera, haren arima xumean konpondu ezinezko bidegabe baten sentipen bizi bat piztu eta bizirik edukitzeko baliabide sotilaz baizik. Baliteke, baliteke. Baina nik esango nuke bere mendeku-izpirituaren erdia isurtzen zuela gizon haren buztin sendoan, edonork kopa huts batean mozkorkeria, eromena eta pozoia isur lezakeen bezalaxe.

«Gasparrek gerra nahi baldin bazuen, benetan izan zuen gerra, gure gudaroste garailea Perutik itzultzen hasi zenean. Operazio sistemakoak prestatu ziren ederki kostata lortutako gure askatasunaren ohore eta joritasunean geratzen zen orban haren kontra. Robles jeneralak gidatu zituen, bere ohiko zorrotasun gupidagabe ongi ezagunaz. Errepresalia bortitzak izan ziren bi aldeetatik, eta ez zen errukirik izan gudu-zelaietan. Peruko kanpainan graduz jaso nindutelarik, estatu nagusiko kapitaina nintzen.

«Gaspar Ruiz presiope larrian aurkitu zen; aldi berean, alaba bat jaio zitzailela jakin genuen, bere herriko parrokiatik atera eta bataioko zeremonia egiteko mendi artean laurogei milia egitera behartu zuten eta gero ihes egin zuen apaiz batek esanda. Gertaera hori ospatzeko, iruditzen zait niri, bi sarraldi distiratsu egin zituen Ruizek gure gudarostea baino askoz atzerago, eta atzerako bidea moztera bidalitako destakamenduak garaitu zituen. Robles jeneralak ez zuen asko falta izan amorruren amorruez odol-kolpe batek jotzeko. Eltxoen ziztadez bestelako arrazoi bat aurkitu zuen lo ezina izateko; arrazoi horren kontra, ordea, pattarrak ez zuen urak baino askoz gehiago laguntzen. Alderantziz, erasiaka eta irainka hasi zitzaidan nire indartsuaren kontura. Eta beldur naiz ohorerik batere ez zuen kanpaina hura bukatzeko presarengatik gu, ofizial gazteak, ez ote ginen ausartegiak bihurtu, zerbitzuan behar ez ziren arriskuak hartzeko prest.

«Nolanahi ere, geldiro, gutxika-gutxika, gure soldadu taldeak Gaspar Ruiz inguratzen ari ziren, hark araukaniar indiar basatien herri osoa gure kontra jartzea lortu bazuen ere. Handik urtebete edo gehiagora, gure gobernuak jakin zuen, bere espioi eta agenteen bidez, itun bat egin zuela Carreras, mendiez beste aldeko Mendozako errepublika deituko diktadore deituarekin. Ezin esan dezaket Gaspar Ruizek asmo politiko sakon bat zuenik horretarako ala, berak gure kontra errukirik gabeko segada- eta hilkintza-gerra egiten jarraitzen zuen bitartean, emaztearentzat eta haurrarentzat babes segurua izatea ziurtatu nahi ote zuen. Ituna egiazkoa izan zen, edozein modutan. Itsas aldetik barnerako gure aurrerabideari aurre egiteko ahaleginean huts egin zuelarik, ohi zuen bizkortasunaz erretiratu zen, eta, beste eraso gogor eta arriskutsu baterako prestatzeko, emaztea eta alabatxoa Pequeña mendikatetik zehar Mendozako mugara bidaltzea egin zuen lehenengo gauza».

«Carreras, politika eta liberalismoaren mozorropean, arrazarik txarreneko gizatxar bat zen, eta diktadore haren alderdia osatzen zuten lapur, traidore eta hiltzaileen harrapakina zen Mendozako zorigaiztoko estatua. Itxura jator baten azpian, bihotzik, errukirik, ohorerik edo kontzientziarik batere ez zuen gizon bat zen. Tiranoa izatea beste helbururik ez zuen, eta pozik baliatuko zatekeen Gaspar Ruizez bere helburu tamalgarrietarako, berehalaxe ohartu izan ez balitz Txileko gobernu aldea edukitzea mesedegarriagoa izango litzaiokeela bere asmoetarako. Lotsagorritu egiten naiz esatean gure gobernuari proposamenak bidali zizkiola zenbait baldintzaren pean bere hitzaz fidatu zen gizonaren emaztea eta haurra gure esku uzteko, eta eskaintza hori onartu egin zela.

«Mendozarako bidean zihoala, Pequeñako mendi-lepoan Carrerasen gizonek traizioa egin eta txiletarrek mendi-sail nagusiaren oinetako zabaldian zuten gotorleku bateko ofizial buruzagiaren esku utzi zuten. Tratu lazgarri hori gerta zekidakeen oso garesti, zeren Gaspar Ruizen kanpamenduan preso bainengoen horren guztiaren berri jakin zuenean. Esplorazio batean preso hartu ninduten, Ruizen bizkartzain taldeko indiarrek nire eskoltako soldadu urriak lantzaz hil ondoren. Gasparrek nire aurpegia garaiz ezagutu zuelako salbatu nintzen akabera berbera izatetik. Ez zegoen zalantzarik hilda nengoela uste zutela nire lagunek, eta neuk ere ez nukeen lau arditik emango nire biziaren truke. Indartsuak, ordea, oso ongi tratatu ninduen, nik beti sinetsi izan nuelako errurik ez zuela eta bera injustiziaren biktima zenean laguntzen ahalegindu nintzelako, esan zidanez.

«—Eta orain —hitz egin zidan—, ikusiko duzu egia esaten dudala beti. Salbu zaude.

«Ez nuen sinesten egiaz salbu nengoenik gau batean beregana joateko deitu zidanean. Basapiztia kaiolan bezala zebilen aurrera eta atzera, oihuka batean: ‘Traizioa! Traizioa!’.

Ukabilak estututa etorri zitzaidan.

«—Zintzurra moztu ahal izango nizuke.

«—Horrek emaztea itzuliko dizu? —esan nion ahal nuen sosegu guztiaz.

«—Eta haurra! —egin zuen garrasi, erotuta balego bezala. Besaulki batean hondoratu zen, barre lazgarri, bortitz bat eginez—. Oi, ez; zu salbu zara.

«Bere emaztea ere salbu zegoela ziurtatu nion nik; baina ez nion esan konbentzitutako nengoela emaztea ez zuela berriro ikusiko. Hil arte gerra egin nahi zuen, eta gerra ezin buka zitekeen bere heriotzarekin baino.

«Begirada harrigarri, ulertezin bat egin zidan, eta marmar betiberdin bat eginez eseri zen.

«—Beren eskuetan dute. Beren eskuetan.

«Sagua katuaren aurrean bezain geldirik nengoen. Bat-batean zutitu egin zen.

«—Zertan nago ni hemen? —esan zuen oihuz; eta atea zabaldurik zaldiei zelak jarri eta igotzeko aginduak banatu zituen—. Zer da? —esan zuen zezelka, niregana hurbilduz—. Pequeñako gotorlekua; oholesizko gotorlekua! Ezer ez da! Mendiaren barren-barrenean ezkutaturik baleukate ere nireganatuko nuke.

«Txundituta utzi ninduen, ahalegin batez gehitu zuenean:

«—Neure bi besoetan eduki nuen lurak ikara egiten zuenean. Eta haurra, hura behintzat bai da nirea! Hura behintzat nirea da!

«Hitz bitxiak ziren horiek; baina ez nuen harritzeko astirik izan.

«—Nirekin etorriko zara —esan zuen bortizki—. Negoziatu egin nahi dut, eta Ruiz gaizkilearen beste edozein mezulariri zintzurra moztuko liokete.

«Nahikoa egia zen hori. Haren eta gainerako gizateria haserretuaren artean ez zegoen harremanik, gerrako arte prestuko ohituren arabera.

«Ordu erdi baino lehen zaldiz gindoazen, eta gau osoan egin genuen hegan eroen gisan. Hogei gizoneko eskolta bat zuen kanpalekuan, baina ez zuen gehiagoren zain geratu nahi izan. Mezulariak bidali zizkion, nolnahi ere, Peneleo, garai hartan mendi-oinetan kokaturik zeuden indiarren buruzagiari, goi-ordokietara joateko aginduz, Ojo de Agua aintziran biltzera, zeinaren ertzetan baitzegoen Pequeñako gotorlekua.

«Gaspar Ruizen sarraldiak hain famatu egin zituen mugimendu-bizkortasun nekaezinaz igaro genituen beheko lurak. Beheko bailaretatik ibili ginen ibarburuetako amildegietaraino. Sarraldi hark bazituen bere arriskuak. Basaltozko horma perpendikular batean egindako erlaitz-bide bat zihoan harkaitz zutiak inguratuz, eta azkenean zintzur sakon baten ilunantzetatik aterata Pequeñako goi-ordokira iritsi ginen.

«Belar berde finezko eta sastraka loratu mehezko zelai bat zen; baina gure buruez oso goian elur-orbanak ageri ziren haitzezko horma handietako arrakala eta zirrikituetan eskegita. Aintziratxoa begi zabaldu bat bezain biribila zen. Gotorlekuko goarnizioa bere abere taldea etxeratzen ari zen gu agertu ginenean. Orduan egurrezko ate handiak erdiz erdi zabaldu ziren eta abandonaturik, hutsik, arima bizi bat gabe zegoela zirudien barruko etxolen belarrezko sabaiak ozta-ozta ezkututzen zituzten hesola puntazorrotz, beltz zabalez inguratutako barruti karratu hark.

«Baina, Gaspar Ruizen agindua betez beldurrik gabe aurrera egin zuen gizon batek errenditzeko agindu zienean, zaldizkoa eta zaldia, biak hankaz gora bota zituen tiro-zaparrada batez erantzun zioten barrukoek. Ruizen hortzak karraskatzen entzun nituen nire ondoan.

«–Ez dio axola –esan zuen–. Orain zoaz zu.

«Nire uniformearen zarpailak urratuta eta kolorea galdua egonagatik, ezagutu egin zuten hartatik geratzen zena, eta hitz egiteko moduko distantzia batera hurbiltzen utzi zidaten; eta orduan itxaron egin behar izan nuen, zeren kanoizulo batetik poz eta harridura oihuak egiten zituen ahots batek ez baitzidan uzten hitz bat ere esaten. Nire aspaldiko adiskide Pajol maiorraren ahotsa zen. Beste kide askok bezala, aspaldi hiltzat emana baininduen hark ere.

«–Sartu ezproiak zaldiari, mutil! –oihu egin zidan, gogo bero-bero eginda–; atea zabalduko diagu-eta.

«Bridak askatu eta burua astindu nuen.

«–Ohorezko hitza eman dut –oihu egin nion.

«–Horri? –hark, berebiziko atsekabez.

«–Bizitza salbu agintzen dizue.

«–Gure bizitza gurea da. Eta zuk, Santierra, rastrero horren aurrean errenditzeko aholkatzen diguzu?

«–Ez! –oihu egin nion–. Baina bere emaztearen eta haurraren askatasuna nahi du, eta ura moztu diezazueke.

«–Orduan emaztea izango da sufrutuko duen lehenengoa. Esaiozu hori. Entzun, honek guztiak ez du zentzurik: ateraldi bat egin eta harrapatu egingo zaitugu.

«–Ez nauzue bizirik harrapatuko –esan nion irmo.

«–Ergela!

«–Jaungoikoarren –erantsi nuen biziro–, ez zabaldu atea. «Eta aintziraren ertzak estaltzen zituen Peneleoren indiar jendeketa erakutsi nien.

«Inoiz ikusi gabea nintzen hainbeste jende basati batera. Haien lantzek belarra bezain ugariak ziruditen. Eta haien garrasi erlastuek itsasoaren marmarraren antzeko zarata nahasi bat egiten zuten.

«Nire lagun Pajol bere baitarako madarikazioka ari zen.

«–Ederki hortaz; zoaz pikutara –lehertu zen, bere onetik aterata. Baina jiratu nintzenean damutu egin zen, eta agindua entzun nion:– Bota zaldi hori, ero horrek alde egin baino lehen.

«Tiratzaille trebeak zituen. Bi tirok jo zuten; biratzen hasi besterik ez eta balantzaka hasi eta tximistak jo izan balu bezala erori zen zaldia. Hankak oinburdinetatik kanpoan neuzkan eta harengandik aske erori nintzen; baina ez nintzen saiatu jaikitzen. Eta haiek ere ez ziren etorri nire bila.

«Indiar masak gotorleku aldera abiatu ziren. Eskuadroietan antolatuta mugitzen ziren, chuzo¹ luzeak jasota; gero, fusilen irismenetik kanpo zalditik jaitsi, eta larruzko kapotak erantzita, biluzik oldartu ziren erasoan, lurra ostikoka zapalduz eta erritmo jakin batean oihuka. Hiru aldiz igaro zuen su-mihi batek gotorlekuaren aurrealde osoa, baina ez zuen gelditu haien martxa. Hesolen kontra pilatu ziren, beren aitzo zabalak eskuetan jasorik, Baina oholesia ez zegoen ohi bezala larruzko lokarriz lotuta, burdinazko iltze luzez baizik, eta haiek ezin izan zituzten moztu. Sarrera bat behartzeko ohiko metodoak huts egin zielako atsekabeturik, fusilen tiroketari hain irmo eutsi zioten jentilak sakabanatu eta ihes egin zuten setiatuen deskargen pean.

«Beren aurreraldian atzean utzi nindutenean, jaitsi eta Gaspar Ruizekin elkartu nintzen berriro zabalitik goratzen zen bizkar apal batean. Bere partidako fusileriak babestu zuen eraso; baina, keinu baten ondoren, korneta batek sua eteteko seinalea jo zuen. Biok isilik geratu ginen basatien hondamendi konponezinari begira.

«—Setioa beharko da, beraz —xuxurlatu zuen. Eta ezkutuan eskuak bihurritzen sumatu nuen.

«Baina zer eratako setioa? Ez zuen nire adiskide Pajolen mezua errepikatu beharrik izan; ez zen ausartzen setiatuei ura mozten. Nahi adina haragi zuten. Eta, hain zuzen, eskas izan balute ere, ez nukeen zalantzarik izango, bera izango zatekeela lehenengoa, ahal izanez gero, oholesiaren barrura janaria bidaltzen. Alderantziz, ordea, zabalagian geundenak ginen, izan, gosearen zitzada sentitzen hasten ari ginenak.

«Peneleo, indiar buruzagia, gure suaren ondoan zegoen eserita, bere guanako-larruzko kapa zabalean bilduta. Basagizon atletiko bat zen, sekulako burutzar karratua zuen, formaz eta tamainaz lastozko erlategi baten itxurakoa, eta aurpegia serioa, mukerra, zimurtsua. Bere gaztelania gaiztoan behin eta berriro esaten zuen, basoko animalia goseti baten antzera marmarka, oholesian zulo bat, txikia bazen ere, eginez gero bere jendea sartuko zela eta andrea ekarriko zuela, baina bestela ezetz.

«Gaspar Ruizek, haren aurrean eseririk, gotorlekuan iltzaturik zituen begiak, gau eta egun, nolabait esateko, isiltasun eta gelditasun beldurgarri batean. Bien bitartean, bere ordezkarietako batek Maipuko haranean izandako porrotaren berri jakin genuen, behe aldeko lurretatik ia egunero iristen zitzaizkigun mezularien bitartez. Urrutira bidalitako beste ikusketari batzuek bestelako berriak ekarri zizkiguten: infanteriako zutabe bat zetorrela mendiko urrutiko igarobideetatik gotorlekuari laguntzera. Geldiro zetorren, baina bagenekien beheko bailaretan egiten ari ziren aurreramendu neketsuen berri. Asko harritzen ninduen Ruiz nola ez zen abiatzen indar mehatxagarri hari segada bat antolatzeko egokia zen

¹ Makila edo ziri luzea

trokaren batean eraso eta suntsitzera, gerrilla-gerrarako zuen jeinuak eskatzen zuen bezala. Baina bazirudien jeinu hark alde egin ziola, etsipenean murgilduta uzteko.

«Niretzat garbi zegoen ez zela gauza gotorleku haren bistatik alde egiteko. Zinez esaten dizuet, señores, ia-ia errukia pizten zidala gizon indartsu ahuldu hura han, tontortxoan eserita, eguzkiak, euriak, hotzak, haizeak batere axola ez ziola, eskuak hanken inguruan eta kokotsa belaunen gainean jarrita, begira, begira, begira ikusteak.

«Eta begietatik harrapatuta zeukan gotorlekua bera bezain geldirik eta isilik zegoen. Goarnizioak hila zirudien. Gotorlekuaren kanoizuloetara egiten ziren tiro desordenatuei erantzun ere ez zieten egiten.

«Gau batean, ondotik paseatzen ari nintzela, bat-batean hitz egin zidan, jarreraz aldatu gabe.

«—Kanoi baten bila bidali ditut —esan zidan—. Zure Robles hori honaino igo baino lehen Erminia eskuratu eta erretiratzeko astia izango dut.

«Ordokietatik kanoi bat ekartzera bidali zituen.

«Kosta egin zitzaion iristen, baina azkenean iritsi zen. Zazpi librako kanpaina-kanoi bat zen. Desmuntatuta eta bi haga luzetara zeharka lotuta, aise ekarri zuten bidezidorretatik bi mandoren artean. Oraindik ere entzuten ari naiz nire belarrietan Gasparren pozezko oihu basatia, egusentian, kanoiaren eskolta bailaran gora agertzen ikusi zuenean.

«Baina ez daukat hitzik, señores, martxa hartako azken gauean, kanoiaren armazoia zekarren aberea, zerbaitengatik edo hargatik amildegi batetik erori zela jakin zuenean nagusitu zitzaion harridura, amorrua, etsipena, nahasmendua adierazteko. Eskoltaren kontra heriotza- eta tortura-mehatxuka hasi zen. Harengandik urruti igaro nuen egun osoa, sastraka batzuen atzean etzanda, orain zer egingo ote zuen pentsatzen. Bazuen erretiratzea; baina ezin zen erretiratu.

«Ni baino beherago Jorge artilleroa, espainiar soldadu zaharra, zaldi-zelak pilatuz halako egitura-edo bat antolatzen ikusi nuen. Kanoia, kargatuta eta prest, gainean jarri zuten, baina piztu zutenean traste hura dena erori, eta oholesiaren gainetik igaro zen tiroa.

«Ez zen beste saiorik egin. Munizioa zekarren mandoetako bat ere galdu egin zuten, eta sei tiro besterik ez zituzten egiteko; kanoia ondo kokatuz gero atea behera botatzeko nahikoa eta sobera. Hori, ordea, ezinezkoa zen kanoia behar bezala muntatu gabe. Ez zegoen ez astirik ez baliabiderik beste armazoi bat egiteko. Edozein unetan espero nuen harkaitz artean Roblesen korneten oihartzuna entzutea.

«Peneleo, bere larruetan bildurik hara-hona kezkatsu ibili ondoren, bere betiko kontua xuxurlatuz eseri zen une batez nire inguruan.

«—Egin entrada bat, zulo bat. Zulo bat eginda, bueno. Zulo bat ez egin, orduan vamos, alde egin behar.

«Ilunabarrean harrituta ikusi nuen indiarrak beste eraso baterako bezala ari zirela prestatzen. Haien errenkadak mendien itzalaren babesean ilaratan kokatuta zeuden. Gotorlekuaren atearen aurreko zabaldian, gizon talde bat ikusi nuen leku berean mugitzen.

«Muintik behera jaitsi nintzen, inor ohartu gabe. Ilargiaren argiak, goialdeetako aire garbian, egun argitan bezala dirdiratzten zuen, baina itzal trinkoek ikusmena nahasten zidaten, eta ezin izan nuen erreparatu zertan ari ziren. Jorge artilleroaren ahotsa entzun nuen, doinu bitxi, ikarati batez esanez:

«—Kargatuta dago, jaunak.

«Orduan talde hartako beste ahots batek irmo esan zituen hitzok:

«—Ekarri riata. —Gaspar Ruizen ahotsa zen.

«Isiltasuna zabaldu zen; setiatutako goarnizioaren tiroak nabarmen entzuten ziren. Haiek ere ikusia zuten taldea. Baina distantzia handiegia zen; eta zorua zulatzen zuten bala galduen zipriztinen artean, taldea zabaldu, itxi, mugitu egiten zen eta denen erdian irudi makurtu bat begizatzen utzi zidan. Ingurura gerturatu nintzen, hura guztia ikuspen bitxi bat, amets kitzikagarri eta zentzugabekoren bat ote zen dudatan.

«Ahots ito berezi batek agindua eman zuen:

«—Estutu hedeak.

«—Bai, jauna —erantzun zioten beste zenbait ahotsek, bizkor eta izututa.

«Orduan ahots itoak esan zuen:

«—Horrela. Arnasa hartzeko libre egon behar dut.

«Orduan zenbait gizonen zarata kezkatu bat izan zen.

«—Lagundu iezaiozue, hombres. Eutsi! Beste besoaren azpian!

«Ahots motel hark agindu zuen:

«—Bueno! Alde nire ondotik, mutilak.

«Elkarrengandik bereizten ari zirenen zirkulu hartan barruratu nintzen eta berriro entzun nuen ahots larritu hura serio agintzen:

«—Jorge, ahaztu gizon bizia naizela. Ahaztu erabat, eta egin behar duzunari bakarrik erreparatu.

«—Ez beldurrik izan, señor. Zu kanoiaren armazoia baino ez zara niretzat; tiro bat bakarra ere ez dut alferrik galduko.

«Metxa baten zirtakak entzun nituen, eta pospoloaren kresal-usaina aditu nuen. Bat-batean, irudi deskribaezin bat ikusi nuen aurrean, lau hankan, piztia bat bailitzan, baina gizon-buruduna, garondotik gora luzatzen zen hodi baten azpian zintzilik, eta brontze-masa biribilkara bat bizkarrean.

«Gizonezko zirkuluerdi baten aurrean, bakar-bakarrik makurtu zen, atzean Jorge zuela eta ondoan turuta-jotzaile bat geldirik, tronpeta eskuan zuela.

«Jorge, makurturik, xuxurlaka ari zen, pizgailua eskuan zuela:

«—Ontza bat ezkerrean, señor. Ez hainbeste. Hortxe. Orain, jaitsi pixka bat, ukondoak tolestuta, nik...

«Alde batera jauzi egin zuen, pizgailua jaitsi zuen eta su-turrusta bat atera zen gizonaren bizkarrean lotuta zegoen kanoiaren ahotik.

«Orduan Gaspar Ruiz geldiro beheratu zen.

«—Tiro ona? —galdetu zuen.

«—Bete-bete, señor.

«—Orduan, kargatu berriro.

«Nire aurrean zetzan ahuspez, bere bularra munduaren historia negargarrian gizonaren maitasunak edo indarrak inoiz jasan behar izan ez duen bezalako karga erraldoi haren brontze ilun distiratsuak zanpaturik. Besoak luze zituen eta penitentziagile ahuspeztu bat zirudien, ilargiak argitzen zuen lurrean.

«Berriro ikusi nuen esku eta belauen gainean altxatzen, jendea urruntzen, eta Jorge zaharra haren gainera makurtzen, hodiaren zentzuan begiratzeko.

«—Pittin bat ezkerrean. Ontza bat eskuinera. Por Dios, señor, ez ikararik egin. Non dago zure indarra?

«Soldadu zaharrari emozioak ahotsa eteten zion. Pauso bat egin zuen alde batera eta, tximista bezain bizkor, pizgailua metxari ezarri zion.

«—Bikain! —egin zuen oihu malkoz beterik; baina Gaspar Ruiz luzaro geratu zen isilik, lurraren kontra zapal-zapal eginda.

«—Nekatuta nago —xuxurlatu zuen azkenean—. Beste tiro bat aski izango da?

«—Dudarik gabe —esan zuen Jorgek, haren belarrira makurturik.

«—Kargatu hortaz —entzun nion esaten garbi—. Turuta!

«—Hemen nago, señor, zure agindutara.

«—Ba, agintzen dizudanean, jo deia Txileren bazter batetik besteraino entzuteko moduan —esan zuen, berebiziko ahots ozen batez—. Eta zuek, gainerakoak, prest egon riata madarikatu hau mozteko, zeren erasoan zuen buru jartzeko garaia izango baita. Orain jaso nazazue eta zuk, Jorge, apuntatu eta jo bizkor itua.

«Gotorlekutik zetorren fusileriaren burrunbak ia erabat itzali zuen haren ahotsa. Oholesia kez eta garrez koroatuta zegoen.

«—Saiatu atzerakadari eusten, mi amo —esan zuen artillero zaharrak ahots dardaratiz—.

Iltzatu behatzak lurrean. Horrelaxe. Orain!

«Pozeko oihu batek ihes egin zion tiroaren ondoren. Kornetak bere tresna ezpainetara jaso eta itxoin egin zuen. Baina ez zen agindurik iritsi etzanda zegoen gizonarengandik. Belaun bat haren ondoan jarri nuen eta esateko geratzen zitzaion apurra entzun nuen.

«—Zerbait hautsi zait —esan zuen arnasoska, burua zertxobait jaso eta erremediorik gabe hondoa jotakoaren jarreran begiak niregana itzuliz.

«—Atea pusketatik zintzilik dago —egin zuen oihu Jorgek.

«Gaspar Ruiz hitz egiten ahalegindu zen, baina eztarrian ito zitzaion ahotsa, eta nik kanoia haren bizkar hautsitik kentzen lagundu nuen. Sorgor zegoen.

«Ahoa itxita eduki nuen, jakina. Indiarrei inork ez zien erasotzeko seinalerik egin. Haren orde z gotorlekuari laguntzera zetozen indarren turuta-hotsa, nire belarriek hainbeste denboran desiratu izandakoa, entzun zen, gure etsaiak, ustekabean harrapaturik, Azken Juiziorako deiak bezala izutuz.

«Ihesaldian zihoazen gizonen, zaldi basatien, zaldizko indiarren tornado bat, egiazko urakan bat igaro zitzaidan gainetik, artean gurutze baten itxuraz ahuspez zetzan Gaspar Ruizen ondoan lurrean kuzkurtuta nengoela. Peneleok, bizitza salbatzeko lauhazka zihoala, ziztada bat egin zidan bere txuzo luzeaz ondotik igaro ahala, lagun zaharren arteko agur gisa, seguru asko. Airean zebilen plomuari nola ihes egin nion azaltzen zailagoa da. Goizegi ausartu nintzen, gainera, belauniko tentetzen, eta 17. Taltal erregimentuko soldadu batzuek, bizirik zegoen edozeri jazarri nahian, baionetaz ia zula-zula egin ninduten hantxe bertan. Oso nahigabetu ziren, gainera, zaldi-lasterka etorri eta sableen albo-kolpez handik uxatu zituztenean.

«Robles jenerala eta haren Estatu Nagusia ziren. Kosta ahala kosta preso batzuk hartu nahi zituen. Hark ere nahigabetua zirudien une batez.

«—Zer? Zu hemen? —egin zuen oihu.

«Baina segituan jaitsi zen zalditik ni besarkatzeko, gure familiaren aspaldiko laguna baitzen. Gure oinetan zetzan gorputza seinالاتu nion, eta bi hitz hauek besterik ez nizkion esan:

«—Gaspar Ruiz.

«Besoak jaso zituen harriturik.

«—Hara! Zure indartsua. Akabera arte zure indartsuarekin. Berdin dio! Heriotzatik libratu gintuen lurra ausartenak ere beldurtzeko moduan dardarka hasi zenean. Neu ere nire onetik aterata nengoen beldurrez. Hori ez! Qué guapo! Non dago menderatu duen heroia? Ja, ja, ja! Zerk hil du, chico?

«—Bere indarrak, jeneral jauna —erantzun nion».

«Baina Gaspar Ruizek arnasa hartzen zuen oraindik. Bere pontxoaren gainean jarri eta heriotza ikusezina dageneko gainean hegan zebilkion bitartean gotorlekuari hain finko begiratzen egondako tontortxoaren gorenera, zuhaixka batzuen babesera eramana nuen.

«Gure tropak gotorlekuaren inguruan zeuden kanpatuta. Egunsentian ez nintzen batere harritu segituan Santiagora eraman behar zen preso baten eskolta-buru izendatu nindutela entzun nuenean. Presoa Gaspar Ruizen emaztea zen, jakina.

«–Zure sentimenduei diedan begiramenagatik izendatu zaitut –adierazi zidan Robles jeneralak–. Emakume hori fusilatu egin beharko genukeen arren, Errepublikari egin dion kalte guztiarengatik.

«Eta ihardespren haserre bat emateko keinua egin nuelarik, jarraitu zuen:

«–Orain, Gaspar hilda dagoenez, emazteak ez du garrantzirik. Inork ez du jakingo zer egin. Baina Gobernuak eramateko eskatzen du. «Roblesekin soinak jaso zituen.

«–Seguru asko harrapakinen parte handi bat emazteak baizik ez dakizkien lekuetan ezkutatu zituen Gaspar Ruizek.

«Egunsentian andre gazte hori muinora igotzen ikusi nuen, bi soldaduren artean, haurra besoetan zuela.

Harekin elkartzera joan nintzen.

«–Oraindik bizirik dago? –galdetu zuen, Gaspar Ruizek adorazioz begiratu ohi zion begitarte sor hura nireganantz biraturik.

«Bekokia makurtu eta hitzik esan gabe gidatu nuen sastraka baten atzera. Gaspar Ruizek begiak zabalik zeuzkan. Nekez hartzen zuen arnasa eta ahalegin handi bat eginez emaztearen izena xuxurlatu zuen.

«–Erminia!

«Gasparren buruaren ondoan belaunikatu zen. Alabatxoa, aitaz ohartu gabe eta bere begi handiez ingurura begiratuz, berriketan hasi zen bat-batean, ahots alai, zoli batez. Behatz mehe batez egunsentiko eguzkiaren distira gorrixka seinalatu zuen gailurren isla beltzen artean. Eta belarriarentzat ulertezina eta gozoa zen haur-hizketaldi hark iraun zuen bitartean, hiltzen ari zen gizona eta belauniko zegoen emakumea, isilik egon ziren biak, elkarri begietara begira, hots mehe hura entzunez. Orduan hizketaldia eten zen. Haurrak bere burua amaren bularraren kontra estutu eta lo hartu zuen.

«–Zuregatik zen –hasi zen–. Barkatu. –Ahotsak huts egin zion. Eta berehalaxe xuxurla bat entzun nuen eta hitz errukarri hauek entzun nituen:– Indarra falta.

«Emakumeak intentsitate harrigarri batez begiratu zion. Gasparrek irribarre-saio bat egin zuen.

«–Barkatu –errepikatu zuen–. Utzi egingo zaitut...

«“Emaztea gainera makurtu zitzaion, begiak lehorrik, eta ahots irmoz esan zion:

«–Mundu osoan zu bakarrik maite izan zaitut, Gaspar.

Gasparren burua mugitu egin zen. Begiak piztu zitzaizkion.

«–Bazen garaia! –hasperen egin zuen. Eta gero, larri:– Baina benetan... egia da?

«–Mundu honetan justiziarik eta errukirik ez dagoela bezain egia –erantzun zion suharki. Gasparren aurpegirantz makurtu zen. Hark ahalegina egin zuen burua jasotzeko, baina atzera erori zitzaion, eta emazteak ezpainetan musu eman zionerako hilda zegoen. Haren begi beiratsuak zerura begira zeuden finko, eta hartan arrosa koloreko hodeiak hegan, oso goian. Baina amaren bularraren kontra estututa lo zegoen neskatoaren betazalak geldiro apaldu eta itxi egiten zirela ohartu nintzen. Lotan zegoen.

«Gaspar Ruiz, gizon indartsuaren alargunak malko bat bera ere isuri gabe utzi zidan handik eramaten.

«Bidaiarako, aulki baten antzeko zela bat prestatu genuen, azpian oinak jartzeko zintzilikako ohol batekin. Lehenengo egunean hitz bat bera esan gabe ibili zen, magalean zeraman haurtxoari ia behin ere begiratu gabe. Lehenengo kanpamendua paratu genuenean, inguruan paseatzen ikusi nuen, haurra besoetan kulunkatuz eta ilargiaren argitan hari begira. Bigarren eguneko martxa hasi genuenean, biztanlerik gabeko lurralde hartan jendea bizi zen lehenengo herrira noiz iritsiko ginen galdetu zidan.

«Eguerdi aldera iritsiko ginela esan nion.

«–Eta emakumerik izango da han? –galdetu zidan.

«Herri handi bat zela esan nion.

«–Badira, beraz, gizonak eta emakumeak, señora –esan nion–; estutasun eta gerra guztiak bukatu direla jakinda pozez zoraturako dira haien bihotzak.

«–Bai, dena bukatu da –errepikatu zuen. Eta handik gutxira berriro:– Ofizial jauna, zer egingo du nitaz zure Gobernuak?

«–Ez dakit, señora –esan nion–. Baina ondo trataturako zaituzte, dudarik ez. Errepublikazaleak ez dira basatiak eta ez dira mendekatzen emakumeekin.

«“Errepublikazaleak” hitza esan nuenean iraungiezinazko gorrotozkoa iruditu zitzaidan begirada bat bota zidan. Baina handik ordubetera-edo, bestela, zamak zekartzaten mandoak, amildegi baten ertzetik zihoan bidezidor batetik aurrea har ziezaguten, aurrera bidali genituenean, halako aurpegi zurbil, larriz begiratu zidan, non berebiziko errukia piztu baitzitzaidan.

«—Ofizial jauna —esan zidan—, makal nago, dardaratan nago. Beldur ero bat dut.

«Benetan, ezpainak dardarka zeuzkan eta, hala ere, hain arriskutsua ere ez zen bidezidor estuaren hasiera ikustean irribarre egiten saiatzen zen.

«—Beldur naiz haurra eroriko ez ote zaidan. Gasparrek bizia salbatu zizun, gogoratzen zara... Har iezadazu.

«Luzatuta zeuzkan besoetatik haurtxoa hartu nion.

«—Itxi begiak, señora, eta fida zaitez mandoaz —aholkatu nion.

«Halaxe egin zuen; bere zurbiltasunarekin eta aurpegi akitu, argalarekin, hildako baten itxura zuen. Bidezidorreko bihurgune batean —porfido gorrizko harkaitz handi batek beheko zelaiak ikustea eragozten zuen— begiak zabaltzen zituela ikusi nuen. Ni atzetik nindoan, hain zuzen ere, neskatxoa eskuineko besoan neramala.

«—Haurra ondo doa —egin nion oihu, animatzeko.

«—Bai —erantzun zidan motel; eta orduan, izaturik ikusi nuen oinetarako oholean zutitu, begiak izutzeko moduan finko zituela, eta gure eskuineko amildegian behera botatzen zuela bere burua.

«Ez naiz gauza ikuspen lazgarri hura ikusita bat-batean nagusitu zitzaidan izumena deskribatzeko. Amildegia izumena zen, keinuka ari zitzaizkidala iruditzen zitzaidan harkaitzen izumena. Burua zabuka zebilkidan. Haurra nire kontra estutu eta estatua bat bezain zurrun geratu nintzen zaldi gainean. Izozturik eta mutu. Emakumearen mandoak estropezu egin zuen; harkaitzaren kontra estutu eta aurrera jarraitu zuen. Nire zaldiak belarriak tentetu eta irrintzitzo bat egin zuen. Bihotza gelditu egin zitzaidan, eta amildegia hondo-hondotik erreka haserrean itzulika zihoazen harrien hotsak are gehiago erotzen ninduten beren zarataz.

«Une baten buruan bihurgunea igaro eta belarrez betetako ezponda zabal batean geunden. Eta orduan oihu egin nuen. Soldaduak lasterka etorri zitzaizkidan, asaldatuta. Badirudi hasieran oihu baizik ez nuela egiten.

«—Haurra nire eskuetan utzi dit! Haurra nire eskuetan utzi dit! —Eskoltak erotu egin nintzela uste zuen».

Santierra jenerala isildu eta mahaitik altxatu zen.

—Eta horixe da dena, señores —bukatu zuen esanez, altxatzen ari ziren gonbidatuei begiratu adeitsu bat eginez.

—Eta haurraz zer gertatu zen, Jeneral jauna? —galdetu genion.

—A, haurra, haurra.

Bere zahartzaroko babeslekua zuen lorategi ederrera jotzen zuten leihoetako batera joan zen. Fama handia zuen lurralde osoan. Esku keinu batez atzean utzirik, dei egin zuen: – Erminia!, Erminia! –eta zain geratu zen. Eskua ohartarazteko jaitsi zuen, eta leihoetan pilatu ginen.

Zuhaitz multzo batetik emakume bat atera zen lorez inguratutako ibilbide zabalera. Haren azpiko gona almidoiztatuaren igurtzi-hotsa entzun genuen eta haren modaz pasatako sedazko gonaren zabaltasuna ikusi genuen. Gora begiratu zuen, eta begira zegozkion begi haiek guztiak ikusirik, gelditu, bekozkoa zimurtu eta behatza jaso zion Jeneralari, hark maltzurki barre egiten zuen bitartean, eta buruan zeraman parpaila beltza bere isla burgoia partez estaltzeko moduan luzatuz, gure bistatik alde egin zuen, duintasun zurrun batez ibiliz.

–Ikusi duzue nire zahartzaroko aingeru zaindaria, nire abegi onak eskain diezazuekeen on eta erosotasun oro zor diozuenena. Maitasunaren garra nire bularrean goiz piztu arren, inoiz ez naiz ezkondu. Eta horrexegatik, beharbada, su sakratuaren pindarrak ez dira oraindik itzali hemen.

Eta bere bular zabala jotzen zuen.

–Oraindik bizi da; oraindik bizi da –esan zuen enfasi erdi komiko erdi serio batez–. Baina ez naiz ezkonduko Hori da Santierra jeneralaren alabatzakoa eta oinordekoa.

Mahaikideetako batek, Itsas ontzidiko ofizial gazteak, “berrogeiren bat urteko neskazahar txiki, lodikote” gisa deskribatu zuen geroago. Guztiok ikusi genuen ilea urdintzen hasia zuela eta oso begi beltz ederrak zituela.

–Eta –jarraitu zuen Santierra jeneralak– ezkontza-kontuak entzuterik ere ez du inoiz nahi izan. Lastima! Ona, eraman onekoa, agure gaixo honi atxikia. Arima bakuna. Baina ez dizuet aholkatzen haren eskua eskatzerik, zeren zuen eskua bereen artean hartuko balizue, hezurak xehatzeko izango bailitzateke. A, horretan broma gutxi harekin. Bere aitaren alaba bete-betea da, bere indarrak –bere gorputzaren, bakuntasunaren, maitasunaren indarrak– hil zuen gizon indartsuarena.